

ARGIA

*Txapela bete indar
mingaina dantzari
borroka irabazteko
desesperantzari*

Maialen Lujanbio
txapeldun hirugarrenez

24-31. orrialdeak

#2.806 | 2022 / 12 / 25 | 4,00 €



**AEB eta Txinaren
gerra fronte
berria: txipak**

12 | NAZIOARTEA



**Jaurlaritzak
beste behin ARGIA
bartzertu du**

32 | DIRU PUBLIKOA



**Aitor Aldanondo,
'Harria' proiektu
musikalaz**

44 | KULTURA



SENDABELAR BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria

Sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

Hasberrientzat zaintzen lan handirik emango ez diguten hamabi sendabelarren baliabide terapeutiko, kosmetiko eta gastronomikoak ekarri ditugu orri hauetara.

Izan ere, geure beharretara egokitzen diren sendabelarrak landuz gero, osasuntsu egoteko behar ditugun erremedioak presta ditzakegu.

Sendabelar baratzea lur sail batean zein etxeko lorontzian egin dezakegu.

Orrialde kop.: 40 **Neurria:** 22 cm (diametroa)

Prezioa 14,00 €

Bidalketa gastuak **5€**.
 Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
 Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | IORITZ GONZÁLEZ
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | RUBEN SÁNCHEZ
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
MABEL ROGRÍGUEZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

32 | ARGIA DIRU PUBLIKOAREN BANAKETATIK KANPO, BESTE BEHIN

Artikulu hau eta Bego Zuzaren analisia irakurrita, irakurleari zer pentsa ematen dio gertakari honek diru publikoaren kudeaketaz, informazio aniztasunerako aukerez, euskarazko eta erdarazko medioen arteko aukera berdintasunaz...



Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Hasi da txipen gerra hotza: AEB-en eta Txinaren arteko banaketa teknologikoa

Urko Apaolaza

14 | GIZARTEA | L. SID AHMED

“Migratzaileen oinarrizko eskubideak sistematikoki urratzen dira”

Danele Sarriugarte

24 | KULTURA | BTN22

Maialen Lujanbio, biribil bezain zorrotz. Elkarrizketak.

Estitxu Eizagirre | Elixabet Etxandi | Eli Pagola

36 | FEMINISMOA | ÁNGELA RODRÍGUEZ “PAM”

“Emakumeen eskubideen aurrerapenak posizio erreakzionarioak eragiten ditu eremu guztietan”

Saioa Baleztena

44 | KULTURA | AITOR ALDANONDO

“Punk munduak iraganera jo ohi du, baina bizitza eraldaketa da”

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Lide Iraola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

A close-up photograph of a hand reaching into a cardboard box. The box is made of corrugated cardboard and is partially open. The hand is positioned on the right side of the frame, with fingers extended towards the interior of the box. The lighting is dramatic, with strong highlights and deep shadows, creating a sense of mystery and focus on the hand's action.

American way

Munduko sheriff-a izaten jarraitzeko hegemonia ezbaian badago ere, lehen indar ekonomiko, militar eta kulturala dira AEBak. Hala izan da hamarkada luzez, baina urterik urtera *American way of life* delakoaren dekadentzia are eta agerikoagoa da. AEBetako bigarren hiririk handienez, Kaliforniako Los Angeleseko alkateak larrialdi egoera ezarri du, “etxegabeen krisi kontrolik gabeari” aurre egiteko. 42.000 bat lagun kalean bizi da, bazterkeria betean, drogen kontsumo neurrigabeari helduta. Hiriko bizitzaren kostu altuak –berbarako, alokairua batez beste hileko 2.700 dolarretan dago–, dozenaka milaka lagun prekaritatean bizitzera behartu du, eta beste asko zuzenean kale gorrira bidali ditu.

📍 62 urteko David Hernandez kartoiekin egindako bere “ohera” sartzen.
JAE C HONG / AP

AXIER LOPEZ

Handwritten text on a label, partially obscured and upside down. Legible fragments include "1719" and "6121".

1719
6121

Fusio nuklearra, lorpen bat lorpen ez dena

 UGO BARDI / IL FATTO QUOTIDIANO

Ziurrenik gogoratuko duzu Ugo Tognazzi eta Raimondo Vianelloren *Il Tronco della Val Clavicola* filmeko esketx bat, Interneten erraz aurki dezakezuna. Kontatzen zuen artisau baten istorioa: zuhaitz baten enbor osoari egurra jatearen poderioz azkenean haginatarako txotx bakar bat lortzen duena. Istorioak badu antzekotasunik fusio nuklearraren azken iragarpenekin. Alimaleko makina bat erabiliz lortu dute energia kantitate txiki bat sortzea: enbor bat xahutuz, txotx bat.

Fusio nuklearrak itxaropen handiz eta desilusio handiz betetako historia luzea du. 1954an, Ameriketako Estatu Batuetako Energia Atomikoaren Batzordeko presidente Lewis Straussek zoritxarreko esaldi bat botu zuen: esan zuen egunen batean fusio nuklearraren energia hain merkea izango zela, ezen ez zuela mereziko erabiltzaileei kobratzea ere (*"too cheap to meter"*, merkeegia neuruzen ibiltzeko). Ia hirurogeita hamar urte geroago esan dezakegu historian egindako aurreikuspenik txarrenetakoa izan zela. Fusio nuklearrezko energia ez bakarrik ez da merkea, ez da existitu ere egiten energia erabilgarri moduan.

Fisio nuklearra ez bezala, zeinak onerako edo txarrerako energia sortzen baitu kontrolatutako baldintzetan (eta arma moduan ere kalte handia eragin dezake), fusio kontrolatua oraindik ere da hurbildu ahala urruntzen diren be-

rehalako ilusio horietako bat. Urteetan zehar metodo asko proposatu dira hori lortzeko, batzuk exotikoak, beste batzuk konplikatuak, beste batzuk engainagarriak ("fusio hotza", adibidez). Eta guztiak ziren garestiak. Mende batez horren bila ibilita, inork ezin izan du aurkitu praktikan funtzionatzen duen ezer.

Kontatu digutena ez da egia, baldin eta sistemaren energia-galera saihestezinak kontuan hartzen baditugu

Eta orduan, zer da egunotan Lawrence Livermore laborategitik zabaldu den fusio nuklearrean egin omen delako "aurrerapen historikoari" buruzko iragarki hau? Esan digute fusio esperimentaleko instalazio batek lehen aldiz lortu duela energia gehiago sortzea erreakzioa hasteko behar izan duena baino. Esan dezagun hori hein batean dela egia: egia da soilik fusioaren bera- ren energia-balantzea hartzen badugu kontuan, baina ez da egia baldin eta sistemaren energia-galera saihestezinak kontuan hartzen baditugu.

Hitz batez, "aurrerapen historikoa" ez da batere aurrerapen. Erabilitako teknologian ez dago ezer berririk: 1950etako

hamarkadan sortutako "konfinamendu inertzial" bera da beti. Ordutik hona xehetasun asko hobetu dira eta ekipo handiago eta indartsuagoak eraiki ere bai. Baina oso urrun gaude erabilera praktikoetatik. Laborategiko ikertzaileek berek ere esan dute "10 urte gehiago" beharko direla. Batzuek 20 urte aipatzen dituzte eta beste batzuek 50.

Egoera irudikatzeko, imajina ezazu zerrategi bat zuhaitz-enborrekin hortzetarako txotxak egiten dituen. Imaginatu 70 urteko lanaren ondoren, zerrategi honek azkenean lortu duela haritz-enbor oso batetik txotx bakar bat sortzea. Arrakasta al da? Agian bai, baina agian planteamendua ez da guztiz zuzena.

Zoritxarrez, ordea, propagandak lortzen du gauzarik alferrikakoena arrakasta bihurtzea. Zientzia gaiez aritzen gara zirku ikuskizun bat balitz bezala, eta hau ez da bakarrik energia nuklearraren alorrean gertatzen, baizik eta ia arlo guztietan, baita medikuntzan ere. Arazoa da jendeak sinetsi egiten duela, eta horregatik ezin konta ahala jende seriotan hartu dute fusio nuklearraren albisteak.

Beti kontu bera da: ero moduan bilatzen dugu gure arazoak magikoki konponduko dituen zerbait, energia bat "ordain araztea merezi ez izateko bezain merkea". Amets ederra, baina ametsak ez dira egia bihurtzen egiazkoak direla sinesteagatik. Kontrolatutako fusio nuklearra izango da energia kontuetan amestu dezakegun ametsik ez-probleena. Garestia eta konplexua da, material arraro asko behar ditu, eta ez da egia hondakin erradioaktiborik sortzen ez duenik. Eta, azkenik, ez da egia fusioa lortzeko erregaia, hidrogenoa, ugaria denik ere. Fusioa hartzen badugu energia sortzeko modutzat, bide nahiko malurtsua da. Aldiz, aplikazio militarrek eduki ditzake.

Ez al da hobe jada badaukagun fusio-erreaktorearekin konformatzea, alegia, eguzkiarekin? Gure beharrak asetzeko adina energia ekoizten du eta doan dator zerutik. Egin dezagun aurrera eguzki-energiarekin, eta ahaztu ezinezko ametsak. ●



DAMIEN JEMISON

MATERIALISMO HISTERIKOA

Material ona



UXUE APAOLAZA LARREA

Lehengusu nagusiak (ez dakit bietako zeinek, Aitorrek edo Xabierrek) zinta batean grabatutako *hit*-en artean, *Hil eza-zu aita*, kotxean. Literaturara jaio berri zen hamalau urteko nerabetsua familiarekin txangoan. Desasoseguan barrena zaramatzen ipuin bat, betirako geratzen eta errepikatzen den gorpuzkera.

*Esaio*k, ahizpak bai ala bai entzun nahi zuen kanta, “yasta, berdin zait dena”. Eta hainbat eta hainbat geruza zeharkatu zituzten kantak, denboraren orratzak plegatzen...


Marmarka hasi nintzen hasiera-hasieratik: esan nituen nostalgiaren aurkako asko, gaur egungo musikariei buruzkoak, *grabatu egingo gaituzte, publierreportaje bat gara, hau boomerrentzat Tinder erraldoi bat da*. Ahizpak isiltasun gor batekin erantzun zidan, eta sarrerak erosiko zituela jakinarazi zidan, “esan nahi duzuna, baina etorri egingo zara”. Eta amaieran ezin nion txalo egiteari utzi, hitzik gabeko eskerrik asko erraldoi bat.

Lehen kantarekin jakin nuen, akabo marmarrak: merezi zuten, merezi genuen. Zaplazteko handi bat, larru jotze bat, Garik berak orgasmo esan zion sentitzen ari zenari. Ba nostalgia honek *molatzen* du, material ona daukagu nostalgiarako, han geunden eta ez geunden historia musikalean hori egotea ordainezina da. Inoiz ikusiko ez nuela uste nuen klasiko bat ikusi nuen, oso bizirik, eta nire ustezko zorrotasuna txikitu zuten. Izan eskuzabalagoa zure klasikoekin, identitatea zor diezu. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Mondragon

ULMAK eta Oronak Mondragonetik irtetea erabaki dute, bazkideen gehiengo zabalak babestuta. ULMAko bazkideen %80k babestu du korporaziotik irtetea, eta babes zabalarekin ere Oronak: %70. Mondragonen komunikazio-kanpaina gogorak ez du beraz fruiturik eman.

Euskara

Euskarazko murgiltze eredua duten hartzaindegiak aukeratzen dituzten guraso askok ez du horretarako aukerarik Ipar Euskal Herrian, eskaintza txikiagoa baita eskaera baino. Arazoari irtenbidea eman eta indarrak batzeko elkarteak sortu dute hartzaindegi eta hartzain-etxe euskaldunek: Konkolotx.

Garraioa

Frantziako Gobernuak hirukoiztu egin nahi du hilerio ibilgailua partekatzen dutenen kopurua, eta horrela, CO2 isuriak %30 murriztea aurreikusi du. 100 euro jasoko ditu autoan 80 kilometro azpiko hamar bidaiari partekatzen dituenak, eta beste 100 distantzia luzeagoko hiru eginez gero.

EKONOMIA

Ez dugu zaintzaile izateko baimenik eskatu



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Bederatzi egun gehiago izango ditugu Hego Euskal Herrian ordaindu gabeko zaintza lanak eta enplegua bateragarri egiteko. Begi onez ikusi da neurria, urrats berri bat delakoan zaintzaren zama arintzeko eta jasangarriagoa egiteko familiei, familia eredu asko daudela aitortuz gainera. Txalotzekoa... edo ez.

Kontziliazio politikak ez dute balio izan gizonak zaintza lanetara batzeko; baimen gehienak emakumeok hartzen ditugu eta gehiago pertsona helduen zaintzarako direnean. Zaintza lanek ekonomikoki eta sozialki emakumeak zigortzea betikotzen duten politikak dira, enpleguan eragiten dutelako eta jardunaldi bikoitzak gure parte hartze sozialerako aukerak murrizten dituelako. Ez dira behar besteak zaindua izan behar denaren premiak asetzeko. Zaintzak gaixotasunekin eta momentuko menpekotasunarekin parekatzen ditu, ez pertsonen beharrekin, zaintzen ikuspegi mugatu eta ezegokian tematuz.

Egia da zaintzen duenarentzat ongi etorriak izango direla baimen egunak. Baina etsigarria da zaintzak antolatzekeo eredu aldatzeko borrokatzen dugunontzat halako neurriak hartzen direnean kontziliazio politikak gaintzeko eta zaintza sistema bat egituratzeko garaia dela esaten duenik ez entzutea instituzioetan. Etsigarria, lanaldiaren murrizketaz ez hitz egitea, Eta etsigarria zaintzak familia kontua izaten jarraitzen duela ikustea.

Feminismoak aspaldi utzi zion zaintzeko baimena eskatzeari zaintzak bere osotasunean berrantolatzea eskatzeko, eta bada garaia emakumeen askapenerako funtsezkoa den aldarrikapena agenda politiko eta instituzionalean dagokion lekua hartzeko. ●

ANALISIA



Gurea bere egiten duen Paris horri...

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Duela 40 urte plazaraturiko *Maiatz* literatura aldizkariaren lehen alea esku artean, epilogoko "euskarak hil behar zuela, beste mintzaira zibilizatuei bide egiteko, Unamunok hala zeukan, dohakabeak. Guk ez dugu euskara beste mintzaira baten compost nahi" pasarteak eraman ninduen bi gertakizunetara. Bata, Frantziaren ordezkari Pirinio Atlantikoetako prefetak Euskararen Eguna kari, Euskaraldiaren logoa erabiliz "Prefetak euskararen hiztun orori besta ona desiratzen die. Frantziaren ondarearen osagai garrantzitsu den euskara sostengatzen du Estatuak, Euskararen Erakunde Publikoaren bitartez" zekarren txioa. Bestea, Frantziako Kultura ministerioak bere ondare immaterialeko kultur ondasunen zerrendan bertsoalaritza sartu izana. Paris, Bordale, Paue: ez gara zuen lurrustel. Gurea ustelarazi nahian zabilzate, zabor gaituzue amets; baina *liberté, égalité, fraternité* eta "aniztasunaren" defendatzaile figura ontzeko erabili ohi gaituzue, gurea zuena eginenez. Zerrendan sartzeko eskaera luzatu zitzaion Frantziako Kultura ministerioari. Galdea eginik erantzuna jaso dugu. Badeke sesitu ez dudun arrazoi bat; konfiantza egiten diet udazken eder, aberats eta euskaldun hau eskaini diguten bertsoegintzako eragileei –esker onak besterik ez ditut Nafarroa Arenan pasatako egunaren biharamunean-. Baina ezer galdetu gabe, abenduaren 3an "besta on" bat desiratzea? Zeinek eta Frantziak? Ez, Paris, gurea ez da besta bat; ofizialtasunik gabe trabaz traba aitzina egitea latza da, eta errua zurea da. Euskaraldiaren irudia erabiltzeko ez zituen hautsak harrotu, euskalgintzak ez zion ihardu (ez behintzat publikoki). Ekimen horrek norbanakoan jartzen du arreta, gure hizkuntza ohituretan eragin beharra daukagulako. Arrazoi. Baina euskara politikoa da, norbanakoa politikoa da, eta ekuazio horretan osagai politikoa faltan da: ofizialtasun eza eta pairatu beharreko diglosia da euskaldunaren lur linguistikoa Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan. Ohiturak indibidualak dira, baina inguruneak eragin handia dauka horietan. Oreka bidean, osagai politikoa eta sistemikoa gehiturik, lur hori irauli nahia uztartu beharra diogu ariketa soziolinguistikoari. Bestela compost gisa baliatuko gaitu Parisek, urtean behin txio madarikatu baten bidez laudatuz gurea. ●

129 milioi

euroko kontratua itxi du Eusko Jaurlaritzak Iberdrolarekin bi urtetarako, iazko prezioaren bikoitzean. Aurten iaz baino %75,9 gehiago ordaindu dio energia enpresari, honek inoizko irabazirik handienak lortu dituen bitartean.

69

langile hil dira lan istripuz aurten (abenduaren 19an astekari hau ixteko unean), iaz hildakoak baino gehiago.

Abenduaren 7an langile bat hil zen Arabako Iruzaiz-Gaunan eraikuntza lanetan zebilela.

9

egun ordainpeko hartu ahal izango dituzte Hego Euskal Herriko herritarrek urtean, zaintza eta kontziliazioa errazteko. Espainiako Gobernuak onartutako neurrien artean dago baita ere seme-alabak 8 urte bete arte gurasoek 8 aste hartzeko aukera, ordaindu gabeak.

“Zuzendaritza-berrantolaketak ez du pazienteen zerbitzuan eta kalitatean eraginik izan”



GOTZONE SAGARDUI

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua.

2022-12-16

“GURE HISTORIA EZAGUTUKO DA BAI ALA BAI. EZ GARA JADA KOTE CABEZUDOK MANIPULATU ETA HAUTSI ZITUEN NESKATO NERABEAK”

CABEZUDOREN BIKTIMAK

Oharra atera dute “En el nombre de ellas” dokumental zentsuratuko biktimek.

2022-12-14

“Ez dugu ekimen erreformistarik nahi, Mozal Legearen indargabetzea eskatzen dugu”

Hogei eragile sozialek baina gehiagok deituta, dozenaka lagun bildu dira Donostian adierazpen askatasuna aldarrikatu eta Mozal Legearen indargabetzea eskatzeko.

2022-12-15



TEKNOLOGIA

Pauso txikiekin eraldatzen



DIANA FRANCO

Orain dela ia hilabete bat itsu elkarre batekin topaketa bat izan nuen, arrakala digitalaren inguruan. Pausoak eman nahi dituzte eremu digitalean dituzten beharrak gizartean eta erakundeetan zabaltzeko, garatzen dugun digitalizazioak euren beharrak aintzat har ditzan. Elkarteko partaideek pazientzia handia dute, eta jarrera ezin hobea aurrean duten helburu zailari aurre egiteko.

Elkarteko kideek euren mundu digitala erakutsi zidaten. Euren mundu digitala abiadura oso azkarrean entzuten da, zeren eta euren nabigazioa, besteak beste, irakurketa automatikoaren bidez ematen da gaur egun, bizkortutako irakurketa automatiko bidez. Azaldu zidatenez, irakurketa hau modu eraginkorrean eman dadin webguneak diseinatzerakoan informazioaren antolaketa bertikala eta hierarkikoa beharrezkoa da.

Saiatu nintzen eurak bezala nabigatzen eta oso zaila da, webgunearen irudia buruan egiteko webgune osoan dagoen testua entzun behar baita. Egun, webguneak ez dira soilik informazio toki, kudeaketa eta harreman toki bihurtu dira aldi berean. Baina uste dut euren beharretara egokitzeko ariketa txikiak egiten badira, pixkanaka denontzako onurak etorriko direla. Adibide bat: elkartekak badu erakunde zehatz batekin arazotxo bat eta biltzen diren tokia eskatzeko erakundeak pdf agiri bat betetzera behartzen ditu. Elkarteko kideentzat, pdf-a entzunez ulertzea eta behar den bezala betetzea lan oso konplexua da eta laguntza eskatu behar diote hirugarren bati. Bazterkeria digital goeraren dagoen pertsona askorekin egiten dut lan, eta eurek ere arazoak izan ohi dituzte pdf bat deskargatu, bete eta bidaltzeko. Itsu elkartearen kasuan, pdf hori online galdetegi bihurtzeko proposamena egingo diogu erakundeari, itsuentzako egokia izango den online galdetegia. Ariketak arrakasta balu, denontzat litzateke onuragarria, eta gela eskatzeko prozesua errazago izango da denontzat. ●

NAZIOARTEA



Puerto Rico deskolonizazio bidean?

AXIER LOPEZ

A benduaren 15ean, AEBetako Ordezkarien Ganberak lege-proiektu bat onartu du, Puerto Ricoko Estatu Libre Elkartuari bere estatus politikoari buruzko lehen erreferenduma egiteko aukera emango diona. Proposamenak senatuan aurrera eginez gero, puertorricarrek hiru aukeren artean aukeratu ahal izango dute: independentzia, AEBetako estatu bat gehiago bilakatzea edo "AEBekin libreki elkartutako subiranotasuna". Erreferendum loteslea izango litzateke, eta 2023ko azaroaren 5ean egingo litzateke.

Lege-proiektua aldeko 233 botorekin –Alderdi Demokratiko ordezkariek gehi errepublikarren bat– onartu dute eta 191 aurka. Baina legea behin betiko bideratzeko, senatutik pasako da eta han zaila izango du onarpena, errepublikarrak oro har galdeketaren aurka-koak direlako eta senatuan gehiengo dira Trumpen alderdikoak.

DESKOLONIZAZIORAKO DEIA ALA JUKUTRIA?

"Puerto Ricok ez du kolonia izan nahi, eta AEBek ez dute potentzia kolonialista izan nahi", esan du Steny Hoyerrek, gehiengo demokrataren buruak. Hala ere, diskurtso handiustekoak aparte –AEBak dira azken hamarkadetako potentzia kolonialik handiena–, ez dira gutxi izan demokraten maniobra politikotzat jo dutenak. Gaur egun puertorricarren artean independentziaren aldekoak gehiengo ez direla jakitun, demokratek Kongresuaren kontrola

sendotzen saiatzeko era bat izan liteke. Izan ere, Puerto Ricok azken hauteskundeetan demokraten alde bozkatu du –alderdi demokratiko Pedro Pierluisi Urrutia da irlako gobernadorea–, eta AEBetako 51. estatu bilakatuko balitz, Puerto Ricotik demokratek senatuan zein ordezkarien ganberan eserleku gehiago lortzeko aukera izango lukete.

Azken sei hamarkadetan sei galdeketan ez-lotesle egin dituzte Puerto Ricon, azkena 2020ko azaroan. Orduan galdera bakarra zen: uhartea AEBetako beste estatu bat bihurtu ala ez?. Botoen %53 aldekoak izan ziren eta %47 kontrakoak, herritarren %54k hartu zuen parte.

1898TIK GATIBU

Puerto Rico AEBen jabetzapean egon da 1898tik, gerra hispano-amerikarraren amaieran kolonia bereganatu zuenetik. Orduz geroztik, zenbait alderditan autonomia-mailaren bat lortu duten arren, AEBek irlaren alderik estrukturalenak kontrolatzen ditu, hala nola defentsa, moneta, immigrazioa eta aduanak.

Puertorricarrak legearen aurrean AEBetako hiritarrak dira 1917tik, baina hala ere ez dute AEBetako presidentea bozkatzeko eskubiderik eta ez dute ahotsik kongresuan. Uharteko mugimendu independentista jazarria eta ikertua izan da historikoki. Kasurik ezagunena 'Karpetak' deitutakoa da: 75.000 bat puertorricar zelatatu zituen FBIk hainbat hamarkadatan, harik eta 1987an den eskandalua publikoki agerian geratu zen arte. ●

“Zorioneko” da urteko hitza

EUSKAL HERRIA / Urtero hautatzen dute urteko hitza Euskaltzaindiak eta UZEIk, eta 2022koa zorioneko izatea erabaki dute: "Irulegiko eskua dela eta, berba horrek hedabideetan eta sarean izan duen erabileran oinarrituta hautatu dugu", arrazoitu dute.



Espekulazioa

Karbon, Marieniako laborantza lurretan, 94 etxebizitza eraiki nahi dituen promotorearen bulegoa lurrez estali dute. Ostia kolektiboko kideak Bouygues higiezin-agentziak Angelun duen bulegoan sartu eta proiektuaren maketa eta ingurua lurrez eta lastoz estali dute.

Futbola

Pasaian jokatzeko ziren futbol partida batean, publikoko batzuk jokalariei arteko liskarrean sartu, eta haietako guraso batek marrazain adingabeari eraso egin zion. Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek azaldu du ez dela kasu bakartua, eta gertatutakoa ikertzen ari dela.

Pederastia

Elizaren sexu abusu kasu gehiago salatu dituzte. Elgoibarko abade batek 1960ko hamarkadan haurrei egindako sexu abusuak salatu dituzte herritarrek. Bestalde, Bermeoko Jose Done ikastetxeko apaiz pederastak, Bilboko Santutxu auzora aldatu zutenean ere abusuak egin zituela egiaztatu dute.

HASI DA TXIPEN GERRA HOTZA: AEB-EN ETA TXINAREN ARTEKO BANAKETA TEKNOLOGIKOA

Applek Txinako bere lantoki erraldoian izan dituen konfinamendu eta protestak ez dira testuinguru geopolitikotik isolatutako kasuak. Eremu teknologikoan gerra hotza dator AEBen eta Txinaren artean, eta mikroprozesagailuak non diseinatu eta ekoizten diren badago aldea, Bigarren Mundu Gerran altzairuak eta aluminioak izan zuten garrantzia bera baitute orain gailu nano horiek.

 URKO APAOLAZA AVILA

Txinako Henan eskualdean bada Zhengzhou izeneko hiri bat, egun 7 milioi biztanle dituena –Euskal Herriko biztanleriaren bikoitza–. Milaka urtetako kultura duen arren, gaur egun ezagunagoa da *iPhone City* izenez. Apple konpainia estatubatuarrak bere mugikor arrakastatsuak muntatzen ditu handik 30 kilometrora duen fabrika erraldoian, eta horretarako 300.000 behargin aritzen dira gau eta egun lanean. Asteotan albiste izan da megafaktoria hori, COVID-19 kutsatzeak saihesteko Txinako Gobernuaren politiken kontra piztu den protesta oldea tarteko. Langileek jasaten dituzten esklabotza baldintzak agerrarazi ditu gatazkak.

Zhengzhouen ekoizten da Applen *iPhone* telefono mugikorren %85 inguru. Lantegia berez Foxconn izeneko Taiwango konpainiarena da eta honek hornitzen du sagartxoaren enpresa. Irailean, koronavirus kasuak ugaltzearekin, "zirkuitu itxia" ezarri zuen, hau da, langileek ezin zuten eraikinetatik atera etxera joateko. Sare sozialetan zabaldu bideoetan ikus zitekeen haien egoera kaskarra, lotarako tokirik eta elikagai nahiz botikarik gabe. Milaka lagunek fabrikatik ospa egitea erabakitzean liskar handiak sortu ziren hesiaren bestaldeko buzo zuridun poliziek. Abenduaren 11n, 56 eguneko konfinamenduaren ondoren, bertan behera utzi zuten neurria.

"Zirkuitu itxiaren" sistema Tesla multinazionalak estreinatu zuen Txinan, baina Zhengzhouko plantako istiluengatik iritsi zaigu mendebalderoi pantailietara. Foxconn kutsatze kasuak eragozteko ar-

gudioarekin ezarri arren, egiaz arriskuan zegoena zen *iPhone 14*-a ez iristea garaiz Gabonetako kanpainarako. Zenbait analisten arabera Applek sasoi horretako diru-sarreraren %40 galduko du: "Proporzio epikoak dituen gainbehera da Applentzat", azaldu dio *The Guardian*-eko Martin Farrer kazetariari Dan Ives datu ikerketetan adituak: "Txinako hornidura katea Eguberriak lapurtu dizkigun *Grinch* bat da".

Txinako Gobernuak azkenean COVID politika zertxobait malgutu du industriagune nagusietan, baina atzerriko konpainia teknologikoak herrialdetik joatea denbora kontua besterik ez dela izango dio Farrerrek. Applek berak jada erakutsi du asmoa alde egin eta India bezalako herrialdeetan ezartzeko. Aitzitik, atzean multinazionalen diru gosea besterik ez al dago? Auzia askoz potoloagoa dela iradokitzen digute AEBetako administrazioak azkenaldian harturiko hainbat erabakik.

"Urriaren 7an mundu gerra deklaratu zen. Ez da horretaz hitz egin duen albistegirik izan, nahiz eta denok jasan beharke ditugun ondorioak". Halaxe idatzi du Marco D'Eramo kazetariak *New Left Review* aldizkariko blogean, "*Circuits of War*" ("Gerra zirkuitoak") izenburua daraman artikuluan. Egun horretan Joe Bidenen gobernuak debeku zorrotza ezarri zien AEBetako enpresei zirkuitu integratuak –txip izenez ezagunak– Txinara esportatzeko. Eta ez hori bakarrik, haien diseinuak eta txipak 'integratzeko' erabiltzen diren makinak esportatzeko debekua ere ezarri zuen.

Badaki zertaz ari den kazetari italiar beteranoa "gerra" aipatzean. *Il manifesto* egunkari komunistaren sortzaileetako eta *La Repubblica*-ren korrespontsal izandakoa, begirada epe luzera jartzeko abilezia du D'Eramok. Bere esanetan, Washingtonen helburua da Txinaren garapen ekonomikoari balazta jartzea: "Gerra ekonomikoko ekintza da", dio.

TXINARI HEGOAK MOZTU

Txinako lantegietatik ateratzen den ia edozerk dauka txip erdieroalaren bat, telefono mugikor, automobil zein mikrouhinlabe izan. Baina datu esanguratsuena da munduko txipen %70 erraldoi asiarrak kontsumitzen badu ere, soilik txipen %15 ekoizten duela, eta gainera, ekoizten dituen txip horietatik bat bera ere ez dela azken belaunaldikoa.

1960an lehen prozesagailuak egiten hasi zirenetik haien tamaina txikituz joan da esponentzialki, eta egun 3nm-ko tamaina duten txipak egiteko gai gara –birus bat baino txikiagoak, ARGIAren 2.758 zenbakian kontatu genizuen bezala–, baina horrek bere mugak eta erronkak ditu, besteak beste, azpiegitura izugarri garestiak behar direla: "Produktzioa erabat intentsiboa da kapitalari dagokionez", dio D'Eramok.

Munduan halako txip sofistikuak sortzen dituzten bi enpresa baino ez daude: Hego Koreako Samsung eta Taiwaneko TSMC. Horrez gain, Herbehereetako ASMc txip horiek "inprimitzen" dituzten makinak egiten ditu. AEBek berriz, txipak



TXIPEN LEGEA

2022ko abuztuaren 9an Joe Biden AEBetako presidentea, enpresei txip erdieoroaleak herrialde hartan ekoizteko laguntza handiak ematen dien legea sinatu zuen. Hortik bi hilabetera Txinara txipak esportatzeko debekua ezarri zuen Washingtonek. Bi potentzien arteko banaketa teknologikoaren eta gerra hotz berrin baten hasierako irudia izan liteke honakoa.

diseinatzeko monopolioa dute. Kazetariaren esanetan finantza kontzentrazio eta dispertzio geografiko horrek ekar dezake Bidenen gobernuaren debekua arrakasta izatea. Izan ere, AEBen "basailu" diren herrialdeetan dago merkatuaren kate ia osoa: D'Eramoren arabera "sektore honetan autarkia teknologikoa ezinezkoa da".

Ondorio horiek guztiak ez ditu bere kabuz atera, baizik eta Chris Miller historia irakasle estatubatuarren *Chip War* (Txipen gerra) liburutik. Bigarren Mundu Gerran altzairua edo aluminio izan ziren moduan, eta Gerra Hotzean arma atomikoak, AEBen eta Txinaren arteko egungo lehian txipak dira gakoa, Millerren aburuz.

1990eko Golkoko Gerran jadanik ikusi zen misilak gidatzeko mikrotxipek zuten

gaitasuna, eta orain, Ukrainakoan, ikusten ari gara Errusiak txip aurreratu horiek "sistemetan integratzeko duen gaitasun falta", dio historialariak Protocol.com atari digitalarekin egindako elkarrizketan. Bere esanetan arlo militarrean "integrazioa" da inporta duena, hau da, mikrotxipen artean informazioa transmititzeko ahalmena: "Eta hori soilik txip erdieoroale aurreratuenek egin dezakete".

Milaka milioi euroko inbertsioa eskatzen duen teknologia militar hori garatzeko giharra –eta asmoa– Txinak soilik duela ikusita, Washingtonek hegoak moztu nahi dizkio, urriaren 7koa bezalako debekuekin. Aldi berean, mikrotxipen merkata desglozatu eta ekoizpena AEBetara –Texasera kasu– eraman nahian dabil,

horretarako diru publiko erreserba handiak erabiliz (280.000 milioi dolar), onartu berri duen Txipen Legearen bidez.

Millerri elkarrizketan galdetu diote AEBei eta Txinari komeni ote zaien "banaketa" teknologiko hori, gerra irekia pizteko aukera handitzen baitu –gerra horren kostu ekonomikoa txikiagoa litzatekeelako–. Tesi horrekin "eszeptikoa" dela erantzun die: "Hain justu, 2022 urteak ekarri digun irakasgaia hori da: ekonomikoki oso loturik dauden potentziak azkar deslotu daitezkeela; Errusiaren eta Europaren artean ikusi dugu modu txundigarrian". Hortaz, agian 2023ak esango digu artikulua honen daraman izenburuari "hotz" adjektiboa ere kendu beharko ote diogun. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Loueila Sid Ahmed Ndiaye

JUSTIZIA ESKUBIDE



MIGRATZAILEEN OINARRIZKO ESKUBIDEAK SISTEMATIKOKI URRATZEN DIRA



Azaroko igande eguzkitsu bat da eta Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministara joan naiz, erresistentzia istorioen Hariak zinemaldia antolatu dutela eta. Bertan parte hartu du, besteak beste, Loueila Sid Ahmed Ndiaye abokatua sahararrak, zeina Kanaria Uharteetan bizi baita gaztetatik. Maleta aldean iritsi da, alai eta indartsu, jaialdiaren antolatzaileak eta beste parte-hartzaile batzuk alboan dituela. Kemenik ez zaie falta.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  TERESA TODA

Hasteko, zure burua aurkezteko eskatu nahi nizun.

Nire izena Loueila da, baina jendeak Lala esaten dit. Duela gutxi abizenak aldatu ditut, askotan gertatzen zaizkigu halakoak migratzaileoi. Lehen Loueila Mint El Mamy nintzen, eta orain, berriz, Loueila Sid Ahmed Ndiaye.

Zer dela-eta aldaketa hori?

Hainbat urtez Justizia Ministerioaren aurka borrokatu behar izan dut naziotasun espainiarra eskuratzeko, ez baitzitzaien iruditzen Espainiako Estatuko gizartean integratuta nongoenik, nahiz eta abokatu gisa lan egiten dudan

herrialdean eta bizi osoa daramadan Kanarietan bizitzen.

Jatorriz, berez, sahararra zara.

Bai. Sahararra naiz, abokatua, eta Kanarietara itsasoz iristen diren pertsonekin lan egiten dut, baita ni neu garai batean egon nintzen antzeko egoeran dagoen jendearekin ere: erregularizazioa, nazionalitatea; halako izapideekin laguntzen diet. Hortxe ikusten dut zernolako zailtasunak eta oztopoak izaten dituzten nirekin diharduten pertsonak, eta horrek laguntzen dit haien egoera salatzen, nire lanaren alderdi aktibista garatzen.

Nolatan erabaki zenuen zuzenbidea ikastea?

Agian errefuxiatuen kanpaleku batean hazi nintzelako, edo herri-mugimenduetan jarduteak nigan izan duen eraginagatik. Gaztetatik ibili naiz Saharako herriaren borrokan, eta horrek beste herri batzuen borrokarekin eta beste mugimendu batzuekin elkartu nau: feministak, pentsionistak, ekologistak... Ezinbestekoa da gutako bakoitzak bere pribilegioen ardura har dezan, gizartea eraldatzeko. Eta horrek guztiak eraginda ziur aski, txikitatik argi izan nuen justiziarren munduan aritu nahi nuela.

Loueila Sid Ahmed Ndiaye

TINDUF, ALJERIA, 1990



Abokatua eta aktibista sahararra, Kanarietan bizi da duela 20 urte-tik gora. Bi ildo jorratzen ditu bere jardunean. Batetik, bere kontura aritzen da abokatu gisa, erregularizazio-prozesuak eta naziotasuna lortzeko izapideak bideratzen ari den jendearekin batez ere. Alderdi aktibistan, berriz, Kanarietara itsasoz iristen diren migratzaileei laguntzen eta haien egoera salatzen dabil.

Berez, epaile izan nahi zenuen.

Bai, horretarako oposizioak prestatu nahi nituen, baina, azkenean, hain zuzen ere arrazakeria instituzionalaren ondorioz, ezin izan nuen. Dena den, ohartu nintzen neure tokia hau dela: hemendik egoerak salatu ditzaket, lan egin dezaket eta ez daukat nagusirik –estatua bera izan zitekeen nire nagusia– halakorik egin ezin dudala esaten didanik.

Zergatik ez zizuten utzi oposizioetara aurkezten?

Ez neukalako naziotasun espainiarra. Bost urtez, Justizia Ministerioak bizi-tza zapuztu zidan. Administrazioak, oso sarri, modu guztiz pasiboan eta burokratikoan jokatzeko du –ez bakarrik erregularizazio- eta naziotasun-kontuetan, beste arlo batzuetan ere bai–, desastre bat da, eta horren eraginez migratzaileak linbo juridiko eta legal batean bizi dira etengabe, benetan nekagarria dena bai fisikoki, bai emozionalki.

Zeure kasuan, Espainiako sistemaren barruan egin zenituen ikasketak, eta, hala ere, trabak.

Nire ikaskideekin batera bukatu nituen Zuzenbideko ikasketak, urte berean egin genuen masterra, amaitu genuen, egin genuen abokatutzara sartzeko azterketa, oposizio baten antzekoa, Justizia Ministerioak antolatzen duena, gainditu nuen, baina Justizia Ministerioak berak ez zuenez nire naziotasun-espeditentea ebazten, ezin nintzen kolegiatu. Argi ikusi nuen zer desberdin tratatzen zaituzten atzerri-tarra izanda, nahiz eta sistema beretik pasatu ginen ikaskide guztiak: nire kideek, María eta Ana deitzen zirenek, ez zuten inongo arazorik izan, eta niri, berriz, Loueila Mint El Mamy deitzen nintzenez, titulua homologatu nahi ote nuen galdetzen zidaten, ikasketak atzerrian egin banitu bezala. Sei hilabetez egon nintzen linbo horretan.

Izua ematen du administrazioaren jarrera horrek.

Bai, ez dakit pasibotasuna den edo nahita egiten duten, baina bata zein bestea izan, azken batean emaitza bera da: jendea milaka euro ordaintzen ari da erregularizazio-izapideak egiteko, eskatzen zaizkion irizpideak betetzeko –ez da gutxi–, eta gero administrazioak ez du erantzuten edo

espeditentea galtzen du edo... Horrek jota uzten zaitu, bizi duenak bakarrik ezagutzen ditu horren ondorioak.

Zein dira linbo horretan egotearen ondorio zehatzak?

Bada, adibidez, ezin duzu botorik eman. Egia da nik ez dudala hauteskunde-sisteman sinesten, baina noiz-bait alderdi bati botoa eman nahi izan banio, ezin izango nukeen, herrialdean zergak ordaindu arren eta bertan bizi arren. Gero, ezin nuen bidaiatu, eta hori garrantzitsua zen niretzat, kanpalekuetan bizi diren senideak ikustea; eta gero, beste gauza bat, niri garrantzitsuena iruditzen zaidana, estatua batean bizi diren gainerako herritarrek eskura dituzten baliabideetara ezin iristea.

Azken batean arrazakeria instituzionalaz ari garenean, horri buruz ari gara: pertsona batek bere izenagatik, koloreagatik edo naziotasunagatik sarbiderik ez izatea edo gauzak ezin eskuratzea gainerako herritarren termino beretan. Justizia Administrazioarekin hiru urtez borrokatu nintzen, eta nik gaztelania hitz egiten dut, abokatua naiz, tresnak ditut... Egin kontu halako baldintzarik ez duen jendearen egoeraz.

Kanarietara itsasoz iristen diren migratzaileekin lan egiten duzu. Zer-nolako kasuak jasotzen dituzue?

Kasu larri mordo bat dago. Gaur egun Kanarietan gehien ikusten ari naizena da ez didatela uzten pertsona migratzaileengana iristen abokatu eta aktibista gisa, hau da, pertsonak bere abokatua hautatzeko duen oinarrizko eskubidea mugatu egiten da, zuzenean eta nahita, ez baitute nahi migratzaileek abokatu onik izatea, horrek itzulketak geraraziko lituzkeelako. Oraintxe bertan horixe gertatzen ari da Kanaria Handian: Atzerriartasun eta Mugen Brigadak eta Kanarietako Polizia Nazionalaren buruak modua diseinatuta daukate migratzaileek ez dezaten abokatu bat lortzeko aukerarik izan beste edozein pertsonak, delitu bat egin zein ez, izango lukeen bezala.

Kartzelara maiz joaten naiz lanagatik, eta ikusten dut zer desberdin jokatzeko den delituren bat egin duen pertsona nazional batekin eta migratu besterik egin ez dutenekin.



Migratzaileen oinarrizko eskubideak sistematikoki urratzen dira: ez bakarrik abokatu bat izateko eskubidea, baita duintasunerako eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea ere, besteak beste. Badirudi, migratzaileak direnez, denak balio duela. Hortxe ohartzen zara gauzak oso gaizki dabiltzala.

Javier Ríos en *Aquí estamos* [Hemen gaude] dokumentala aurkeztera etorri zara Hernanira. Zer kontatzen duzue bertan?

Covidaren krisiaren ostean gertatutakoa kontatzen dugu, Covida mugarri bat izan baitzen. Hori baino lehen, Atzerriartasun Legeak zehazten zuen eze modu irregularrean Kanarietara sartzen saiatzen harrapatzen bazintuzten zeure herrialdera itzultzeko prozedura bat abiatuko zela. 72 orduz atxilotuta egoten zinen eta CIE atzerriarrentzako zentro itxi batean sartzen zintuzten.

Eta pandemiarekin zer gertatu zen?

Askoz jende gehiago iritsi zen. 2020an 20.000 lagun iritsi ziren, eta 2019an, berriz, 6.000 gutxi gorabehera. Ez zuden prest hainbeste jende hartzeko, ez zegoen baliabiderik, eta jende asko portuan bertan geratu behar izan zen behin-behinean. Pandemia baino lehen, Atzerriartasunak zehaztutakoa bete egiten zen, pertsonen oinarrizko es-

kubideak urratzen baldin baziren ere CIE eta abarrekin, baina hori zen legea. Hori aldatu egin zen konfinamendua- ren ostean.

Neurri konkretu batzuk ezarri ziren Kanarietan.

Bai. 2020ko abendutik 2021eko udara bitarte gertatutakoa azaltzen dugu guk filmean. Barne Ministerioak agindu bat eman zuen, zeina ez baikenuen inoiz paperean ikusi, ezin izan genuen aztertu, eta argi dago ilegaltasun bat izan zela, zuzenean Kanarietan ezarria. Bada, agindu horren bitartez adierazi zen Kanarietara iritsitako migratzaileek ezin zutela handik atera. Orduan, Lesbos bat bizi izan genuen, Lampedusa bat: jendea atxilotuta eta uharteetan giltzapetuta, ezin atera. Kanariak ez dira migratzaileen helmuga, geldione bat baizik. Gehienek bertara iritsi nahi dute, eta ondoren alde egin, baina pandemiaren garaian itxi egin zituzten uharteak.

Zenbat iraun zuen egoerak?

Sei hilabete. Frustrazio eta neke handia eragin zuen horrek, eta buru-osasuna ere porru eginda utzi zieten, migratzaile

le askok ez zuten ulertzen nolatan, bi- daia ordaindu eta gero, adibidez Fran- tziara joan nahi bazuten, bat-batean harrapatuta geratzen ziren... Errefuxia- tu-kanpaleku askotan ikusten da hori, eta argi dago agintarien politika dela jendea nekaraztea, amore eman deza- ten eta beren herrialdera itzul daite- zen. Kasu honetan, plan hori diseinatu zen Kanariak Espainiako Estatuaren



“Argi dago agintarien politika dela migratzaileak nekaraztea, amore eman dezaten eta beren herrialdera itzul daitezen”

parte ez balira bezala, eta al- diz muga bat balira bezala: jendea hor gera zedila ha- rrapatuta. Sufritzen ari direla? Ez du inporta; hor geratzen badira eta ez badira penintsulara sartzen...

Eta orain nola dago kontua?

Zorionez, gauzak hobetu egin dira sarrera eta irteerei dago- kinez. Pertsonak beren baliabideekin atera daitezke. Familiaren laguntza, pasaportea etab. dauzkana atera egin daiteke, eta GKEen azpiegituretan dau- denek ere lortzen dute nahi duten le- kura joatea, izapidea apur bat gehiago luzatzen bada ere. Ez du zerikusirik sei hilabete horietako egoerarekin.

Bestalde, nire ikuspegitik, beste alderdi batzuk ere hobetu dira Kana- rietan. Jendea ez dago portuetan edo

nabeetan, orain bestelako espazio bazu-
tuetan daude, CATE delakoetan [Atze-
rritarrei behin-behineko arreta ema-
teko zentroak]. Hobeak izan litezke,
noski, baina behintzat ez dago arra-
toirik eta kakalardorik, dutxak daude,
oheak, eta pertsonak bere intimitatea
du. Eta niri hori funtsezkoa iruditzen
zait.

**Ez nuke elkarrizketa amaitu nahi
Saharako egoerari buruz hitz
egin gabe. Martxoan, Espainiako
presidente Pedro Sánchezek adierazi
zuen Marokoren alde jarriko zela
Sahararen auzian.**

Ez dut ezer espero gobernari-
en partetik. Gaur Sánchez, bihar Feijoo, etzi bestea...
Ez dut ezer espero. Saharako herria-
ren borroka ez da eraldatu Sánchez-
en jarrera gorabehera. Maskarak erori
dira, hori bai. Espainiak, lehendik ere,
harreman komertzialak zituen Maroko-
rekin, nazioarteko legea urratzen zuen,
Europar Batasuneko Justizia Auzitegia-
ren ebazpenak urratzen zituen, zeinen
arabera Marokok ezin baititu Mende-
baldeko Saharako baliabideak ustiatu.
Espainiak lehendik ere babesten zuen
okupazio ilegal hori, armak salduz eta

Marokorekiko akordio ekonomiko-
en bidez. Orain, jardun horri izena jarri zaio,
besterik ez. Neurri batean ondo irudi-
tzen zait, joko agerian geratu delako.

**Zure herriaren borrokari
dagokionez, itxaropenik duzu?**

Federik izatekotan, herrian dut fedea.
Gizaterian dut fedea, nahiz eta egune-
rokoan egiten dudana lanak sekulako
higadura sortzen duen. Sinesten dut
pertsonak eraldatu egiten direla, esku-
zabalak direla, laguntzen saiatzen direla
eta altxatu egingo direla beharrezkoa
denean. Bestalde, Espainiako Estatu-
ko jende askok saharar herriaren auzian
zer posizio hartu duen ikusi dut, eta ho-
rrek itxaropena ematen du. Gure borro-
ka bidezkoa dela erakusten digu. Uste
dut erresistentzia hutsa dela, eta 45 ur-
tetik gora daramagu horrela. Dena den,
iruditzen zait gatazkaren bi alderdiak ez
garela parekoak, eta kontratu bat sinatu
dela jazarle batekin.

Bullyngarekin alderatzen dut beti.
Demagun eskolan haur bati jazarri zaiz-
kiola: irakasleak ezin dut tortilla erditik
moztu, eta bi alderdiak mahaiaren buel-
tan jarrita, hori banatu. Hemen biktima
bat eta erasotzaile bat daude, eta eraso-

tzaileari ere erantzun beharko zaio, ikasi
beharko du, baina lehenik eta behin joan
gaitezen biktimarengana, hari eginda-
ko mina konpondu behar da, barkame-
na eskatu, eta horren ostean ikusiko da
erasotzailearekin zer egin. Beste arlo
askotan gauza bera da, indarkeria ma-
txistarekin edo okupazio ilegalarekin,
adibidez.

**Hain zuzen ere Marokoren eta
Saharako herriaren kasuan, ez da
parekoen arteko gatazka bat.**

Gure lurra kendu digute, erauzi, bertako
natur baliabideak ustiatu, herritarrak
hil... Ezin dugu negoziatu kolonizatzaile-
ekin ezta okupatzaile militarrekin ere,
zeintzuek, bide batez esanda, Espainiak
saldutako armak erabiltzen dituzten.
Has gaitezen hasieratik. Egoera horrek
zer ondorio eragin dizkio biktimari?
Okupazioaren pean bizi da, eskubideak
urratzen dizkiote, errefuxiatu-kanpale-
kuetan bizi da, laguntza humanitarioa-
ren mende. Lehenik eta behin konpon
dezagun kontu hori. Ezin da negozia-
ziorik garatu erasotzailearen eta bik-
timaren artean, ezin da bitartekaritza-
prozesurik egin alderdi bat besteari
eraso egiten ari zaionean. ●





Umezurtz digitalak



IORITZ GONZÁLEZ
LERTXUNDI
IRAKASLEA

Askotan entzun izan dut umeak txiki-txikitatik ederki moldatzen direla mugikorrek edo antzeko gailuekin, maiz helduok baino hobeto maneiatzen dituztela. Beharbada, gazteak jaio direnetik ohituta daude gailu horiek egunero erabiltzen, ados. Hala ere, erabiltzen jakiteak ez dakar beti erabilera egokia. Hezten al ditugu ezinbesteko egiten zaizkien gailuekin ibil daitezen?

Hezkuntza jakintzan eta esperientzian oinarritu izan da beti, eta teknologia berrien kasuan, esango nuke kasu askotan ez dugula ez bata, ez bestea. Ondorioz, tresna horiek gazteenei gutxieneko heziketarik gabe eskaintzen dizkiegu askotan.

Belaunaldien arteko arrakala deiturikoa jada errealitatea dela esango nuke. Gazteenek darabiltzaten hitz batzuk ezagunak egingo zaizkigu segur aski, hala nola *blogger*, *cyberbullying*, *Facebook*, *Instagram*, *like*, *follower*, *influencer*, *tweet*, *hater*, *match* eta abar. Baina hausnartu al dugu, benetan, zer eragin izan dezakeen errealitate horrek egungo gazteengan? Are garrantzitsuagoa, egin al dugu gogoetarik izan ditzakeen ondorio edota arriskuei buruz?

Pentsa, esaterako, zenbat aholku jaso izan ditugun kalean bakarrik *nabigatu* aurretik. Hainbat urtez helduekin ikasi ondoren hasi ohi gara kalean ibiltzen; pentsaezina izango litzateke ume txiki bat bakarrik errepedea guru-

Gazteen bizitzan ezinbestekoak dira mugikorrak, eta itsaso zabal horretan heziketarik edota aholkurik jaso gabe nabigatu ohi dute

tzatzen ikustea, esaterako. Teknologia berriekin horrelako zerbaitegiten ari gara. Saiatzen ote gara gailuen erabilera egokia egiteko gutxieneko irizpideak irakasten? Mugikorrak erabiltzen hasten direnean, arriskuak zeintzuk izan daitezkeen irakasteko denbora tarterrik hartzen al dugu?

Nerabe asko eta asko, logelan sartu eta ordenagailuarekin edo mugikorrarekin Internetera konektatzen dira, bakarrik, beren logeletan. Mundu digitalean dabilta nabigatzen, askotariko interes eta trikimailuz joseriko errealitate batean, desinhibiturik; maiz, heziketa eta aholkurik jaso gabe. Askotan, geuk, helduok ere, hausnartu izan dugu noiz edo noiz gailuen erabilera egokia egin ote dugun: neurritz kanpo erabiltzen dugu-

nean, nabigatzean segurtasun falta sumatu izan dugunean, ziria sartuko ote diguten susmo edo beldurrez, eta abar. Gazteek ez ote dute arrisku bera edo gehiago izango? Nik uste erabilera okerrak eta horrek izan ditzakeen arriskuak saihesteko heziketa jasotzeko eskubidea izan beharko luketela, beste egoera edo testuinguru batzuetan bezalaxe.

Gazte gehienek egunero ordu asko eskaintzen dizkiete mugikorrei; haien bizitzan ezinbestekoak dira, eta *mundu digitala* deritzogun itsaso zabal horretan heziketarik edota aholkurik jaso gabe nabigatu ohi dute. Behar dituzten baliabideak helduok erraztu behar dizkiegularakoan nago, gutxieneko arriskurik gabe erabiltzea nahi badugu, behintzat. Ez ote daude umezurtz, bizitzan jada ezinbestekoa egiten zaien eremu batean? Esaterako, hausnarturiko erabakia al da ume txikienei zenbat urterekin hasten garen mugikorrak uzten? Edo, lehenengo mugikorra zenbat urterekin erosten diegun? Ala gizarteak eta inguruneak baldintzatzen ditu erabat joera horiek? Neurtu al dugu zenbat ordu pasatzen dituzten gailuekin egunero? Ba al dakigu zein aplikazio dituzten nerabeek mugikorretan? Galdetzen al diegu sare sozialetan zein argazki partekatzen dituzten?

Urak bidea eginen duela esan ohi da; gazteek eginen dute bidea, baina latsa nondik bideratu da kontua. Ez genuke ahaztu behar gaur irakatsitakoek argituko dizkietela biharko bideak. ●

Irakaslea hamster-gurpilean gatibu



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Itxaron, mesedez, honek minutu batzuk iraun dezake. Programak eguneratzen ari dira. Orria ezin da kargatu. Ekipoa berrabiarazi behar da. Pasahitza idatzi. Sentitzen dugu, pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro, mesedez. Barkatu, itxaronaldia gainditu duzu, joan zaitez aurreko pausora. Aukeratu zure ekipoareen konfigurazioa. Gorde nahi duzu zure konfigurazioa? Ustekabeko errore bat gertatu da. Aukeratu zure nabigatzaile lehenetsia. Egin klik 'hurrengo' botoian. Aukeratu pantaila-hondoa. Ez dago Interneteko konexiorik. Saiatu berriro minutu batzuk barru. Sentitzen dugu, programak ez du erantzuten. Berrabiarazi ekipoa, mesedez. Sartu erabiltzailea eta pasahitza. Erabiltzailea edo pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro. Erabiltzailea edo pasahitza ez da zuzena. Saiatu berriro. Zure ekipoko aplikazio batzuen eguneraketa prest dago, eguneratu nahi duzu orain? Eguneratu nahi duzu orain? EGUNERATU NAHI DUZU ORAIN? Zure ekipoa arriskuan dago, antibirusa eguneratu behar da. Onartu cookiak edo 'informazio gehiago' botoian klikatu. Web-orri honetan sartzeko erregistratu behar da. Pasahitzik baduzu? Sartu pasahitza edo erregistratu. Sartu erabiltzailea. Erabiltzailea ez

da zuzena. Aukeratu dokumentua irekitzeko programa. Formatua bateraezina da. Programa hau ez dago ekipotan instalatuta. Deskargatu programa. Programa deskargatzen ari da. Itxaron, honek minutu batzuk iraun dezake. Programa egoki deskargatu da. Instalatu behar duzu programa. Sentitzen dugu, ez duzu programa instalatzeko baimenik. Baimena eskatu. Irakurri gabeko 55 mezu dituzu sarrerako ontzian, irakurri nahi dituzu orain? Ez dago konexiorik. Zorionak, 10.000. erabiltzailea zara, klika ezazu 'onartu' botoian zure saria ikusteko. Ziur zaude ez duzula zure saria ikusi nahi? ZIUR ZAUDE ZIUR ZAUDELA? Pasahitza idatzi behar duzu berriro. Hautatu inprimagailua. Errore bat gertatu da. Sistemak ez du erantzuten. Masedez, itxaron. Esan zein iruditan dagoen semafororik. Erantzun okerra. Esan zein iruditan dagoen zebra-bide bat. Erantzun zuzena. Bost segundo barru publizitatea saltatu ahal izango duzu. Lau segundo barru..., hiru, bi, bat, zero. Orain alboratu ahal duzu iragarria. Zure pasahitza iraungi da. Masedez, sartu pasahitz berri bat. Errepikatu pasahitza. Pasahitza ez da baliozkoa, guxtienez hamar karaktere izan behar ditu. Pasahitza ez da baliozkoa, letra larriak

eta xeheak izan behar ditu. Pasahitza ez da baliozkoa, zifrak eta letrak izan behar ditu. Errepikatu pasahitza. Gainditu duzu saiakeren kopurua. Hasi saioa berriro. Itxaron, zure ezarpenak ari dira kargatzen. Konturik baduzu? Sartu pasahitza. Ireki kontu bat. Hasi nahi duzu saioa zure korreo elektronikoaren bidez? Mezu bat bidali dizugu sakeleko telefonora, ipini laukian bidalitako kodea. Ez duzu mezurik jaso? Pasahitza edo erabiltzailea okerra da. Beste bi saiakera dituzu. Arazo bat gertatu da. Ekipoa amatatu behar da. Kontuz, hau azken saiakera da. Ziur zaude atera nahi duzula hemendik?

[Eguneroko ogia. Ikasgelan bertan; lan-mahaian ariketak zuzentzean; familiei edo ikasleei mezu bat bidali nahi izatean; azterketak prestatzean. Etsigarria eta amorragarria. Eusko Jaurlaritzak Interneteko eta informatikako multinazional erraldoiekin kontratu ederra sinatu zuen duela aste batzuk, eta konpainioi hezkuntza publikoan jaun eta jabe izateko aukera eman die. Baina ez dute baretu ordenagailuaren aurrean esertzean irakasle askorengatik sortzen den antsietatea, angustia eta egonezina, bizitza laburtzen digutenak. Ziur horretan ari direla lanean. Auzolana]. ●

Seme-alabak Espainiaren alde



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

nor ez al doa bolantean? Hego Euskal Herrian, behintzat, badirudi euskal *soufflearen* hustuketak ez duela ez ete-nik, ez azkenik.

Gaur egungo ume eta nerabeek *euskal gizartean* ikusten dutena da asimilazio handi bat eta kontraktotasun gutxi. Ez dute ezer hutsetik asmatzen, gizartea hauteman eta egokitzen dira. Eta gauzak aldatu dira:

- Euskararen erabilera beherantz doa arnagune deritzan haietan (ere). Hango ume eta nerabeek (ere) inoiz baino goizago heltzen diote erdarari. Izan ere, ETB3 4-5 urte betetzen dituztenerako uzten dute, *Goazen* 10 bat urterekin, eta gainerako guztia erdaraz kontsumitzen dute gehien-gehienek.

- Helduen artean independentismoa inoizko portzentajerik baxuenetan dago. Eta hori baino larriagoa da Euskal Herri mailako ehuntze, kultura, ekonomia, harreman, sentimenduak... oso ahul ageri direla. Kirolean, esaterako, asko apaldu da euskal selekzioen aldeko aldarria, eta euskal selekzioak EAEko selekzioekin ordezkatu direnean garaipen nazionalizat hartu da. Edonola ere, panorama horren aurrean, Hego Euskal Herriko ume eta nerabeek naturaltasunez nahiago dute Espainiak irabaztea; areago, kasu batzuetan animatu ere animatzen dute, suhar. Inguruko guraso asko ardotan ari

gara gure etxe lotsak itotzen, zer sufritu beharko genukeen pentsatzen, Marokoren rengatik izan ez balitz.

- Aurrekoan, bertso eskolako ume batzuei esaten nien ea youtuberrak ikusi ordez, youtuber egingo ote ziren... euskaraz. Begiratu zidaten apaiz misiolari bat banintz bezala. Youtuber baten helburua da jarraitzaile eta ikustaldi pila bat izatea, beraz, euskaraz? Orduan, esan nien ni munduko tontoena izango nintzela txikitari euskaraz jakin ez, eta nire gauzatxoak gaztelaniaz egin ordez euskaraz egitea erabaki nuelako. *Bai* erantzutera ez ziren ausartu, baina entzun, entzun nuen.

ETB hasi berri hartan, euskara ulertu gabe ere inoiz edo behin ikusten nituen marrazki bizidunak euskaraz, erdarazko programazioak aspertzen baninduen. Ondoren, 90. hamarkadan euskaraz ez genekien askok nahi izan genuen euskara ikasi eta erabili: hartara, *Goenkale* ikusten genuen, baita euskarara bikoiztutako hainbat film eta telesail ere... Bitartean, Espainiako partidak Hala Bedi-n UHTren bidez jarraitzen genituen, espainiar infanta eta printzearen ezkontzak bezala: uholdea etorriko balitz barre pixka bat egiteko, behintzat.

Dena likidoa eta *post* den sasoi honetan, bada zerbait solidoa eta haztagarria: España! ●

Euskal unibertsitate sistema, publiko?



**ARANTZA
GUTIERREZ PAZ**
EHU-KO IRAKASLEA

Azken hilabeteotan EAEko Hezkuntza Legearen inguruan eztabaida sakon eta interesgarria (ber)piztu da euskal gizartean, eta agerian geratu da hezkuntzak dituen erronken artean jatorriak eta maila sozio-ekonomikoak eragindako segregazioari aurre egitea dagoela.

Eztabaida hezkuntza ez-unibertsitarioan kokatu bada ere, lege-aurreproiektuan jasotzen den euskal hezkuntza zerbitzuaren eta “euskal” unibertsitate sistemaren arteko antzekotasun handia ikusten dut nik. Izan ere, definizio horren barruan parekatzen dira EHU

publikoa eta “irabazi-asmorik gabeko” bi unibertsitate pribatu; sistema duala kolokan jarri da soilik enpresek bultzaturiko zentroak gurean ezarri nahi izan direnean, azken horiek euskal sistematik kanpo kokatuz, eta elitistatztat hartuz.

Askotan izendatzeak maskaratzen du errealitatea eta, sistema barruan egonda ere, maila sozialak mugatzen ditu pertsona askoren ikasteko aukerak (unibertsitate publikoak ere ez ditu bermatzen). Beraz, hezkuntzaren eskubidea jaiotzatik goi ikasketak burutu arte bermatze-ko aukera bakarria publikoan inbertitzea da, guztiona izan dadin. ●

'Zoon politikon'



LAURA PENAGOS RODRÍGUEZ
ANTZEZLEA

Migrazioa? Ez, mila esker" Jose Mari Esparzaren testuak hau- tsak harrotu zituen duela hi- labete inguru. Soka luzea ekarri zuen horrek, eta nik ere soka horretatik tira egin nahiko nuke. Argudioak eman ni- tzake diskurtsoa arrazista dela esateko, baina ez da hori nire asmoa; arrazakeria mota asko daude leku guztietan, eta he- mengo sektore "progresistak" ez daude errealtate horretatik salbu. Esan be- zala, baina, beste zerbaitetan jarri nahi nuke arreta. Iritzi emaileon eta informa- zioa jasotzen dugunon arduraz eta be- tebeharraz sortu baitit gogoeta nagusia Esparzaren testuak.

Lengoiak pentsamendua sortzen du, eta pentsamenduak ekintza. Alde bate- tik, hedabideetan geure usteak plazara- tzen ditugunon arduraz pentsarazten dit horrek. Agian ez dugu inolako eran- tzukizunik, segur aski kontuak eska- tzen ibiltzea ariketa kontserbadorea eta paternalista da, eta iritzia librea da, ekonomia bezala, librea. Iritzia eskla- boz betetako mundu hau bezain askea da. Iritzi-emaile profesional bihurtu gara, eta agian zilegia da, baina horren ondorioz (ere) sare sozialak eta komu- nikabideak iritzi-kazetaritzaz gainezka

Buruan ditugun
usteak askotan ez
dira gureak, baizik
eta beldurraren
eta aurreiritzien
ondorio, beste
batzuek guk
pentsatzea nahi
dutena, finean

daude, "informazioaren demokratiza- zioa" omen.

Beste alde batetik, gogoan hartu behar da iritzi jasa horren hartzaileek nola kudeatzen duten informazio anda- na hori. Esango nuke askotan ez gaudela prest behar bezalako hausnarketa sako- na egiteko. Batzuetan, diskurtso ofiziala errepikatu besterik ez dugu egiten. Bes- te batzuetan, jasotako informazioa gure

iritziarekin bat ez datorrenean, pozoia zabaltzen dugu sareetan, hausnarketari tarterik eman gabe.

Adiskideak eta etsaiak sortzen ditu- gu di-da batean, erraietatik egindako irakurketetan oinarrituta, eta mundua modu ezberdinean ikusten dutenak kon- bentzitu egin nahi ditugu, geure egia ba- karra balitz bezala.

Oso politikoak garea sinetsita, mun- dua aldatzen ari garelakoan, *panem et circenses* distrakzioaren bidea jarrai- tzen ari gara, agenda markatzen dute- nek gure kirtenkeriaz irri egiten duten bitartean.

Geure buruari galdetu beharko ge- nioke zein den gure prozesu mentala informazioa barneratzeko. Buruan di- tugun usteak askotan ez dira gureak, baizik eta beldurraren eta aurreiritzien ondorio, beste batzuek guk pentsatzea nahi dutena, finean. Aristoteles gogo- ra ekarrita, *zoon politikon* gara, "ani- malia politikoak", alegia. Hala, esango nuke "animalia politikoak" izatea bestea modu sakonean ulertzea dela, eta modu horretan mundua ulertzea. Ekintza horren bidez, nork bere kaka purgatu beharko genuke, kaka hori munduari ez botatzeko. ●



www.argia.eus/eginargiakoa

Babestu euskal
kazetaritza
independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

PAPERA
30€ urtean

PAPERA + DIGITALA
35€ urtean

DIGITALA
20€ urtean



GAZTEZULORATU



✉ harpidetza@gaztezulo.eus
640 122 382



gaztezulo.eus/harpidetu

MAIALEN LUJANBIO HIRUGARRENEZ TXAPELDUN

Biribil bezain zorrotz

Abenduaren 18an Nafarroa Arena euskararen erresonantzia kutxa bihurtu zuten 13.300 bertsozalek. Finala lehenengoz Nafarroan jokatzear gain, historiko bihurtu du finalisten osaerak, lehen aldiz hiru emakume aritu baitira kantuan, eta 55 urteren ondoren, nafar bat (edo herritartasuna ulertzeko moduaren arabera bi, Colina azken urteetan Iruñean bizi baita). Maialen Lujanbio zeukaten zain bertan, eta txapelketari zuzenean ekiten dionak ez duela txapelik janzen dioen estatistika hautsi zuen, hirugarrena eskuratuz. Amets Arzallusekin aritu zen buruz buru, eta orduantxe lehertu zen edukiz eta hizkuntzaren akrobaziaz ederra izan zen egun osoko saioa.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal eta Joanes Illarregi. Ordena horretan ezarri ditu historiaren orrian puntuazio taulak, baina publiko bakoitzak bere gustuen arabera intentsitate handiagoz gogoratuko du bertsolari hauetako bata edo bestea, 2022ko final historikoaz pentsatzen hasten denean. Buruz buruko bi izenak esan aurretik ere, bati eta besteari galdetuta belarri adina aburu entzun zitezkeen; Lujanbioren izena zen errepikatuena, baina hortik aurrera dena zabalik zegoenaren sentsazioa zeukan entzuleak. Biharamunez finaleko puntuazio taulari erreparatuta,

ordea, aukera aniztasun hori irudikapen hutsa zela ikus dezakegu, epaimahaiak oso argi zeukala sententzia: alde handia aterea zien saio osoan zehar Arzallusek beste, 190,5 puntu hirugarren gertatu zen Mendiluzeri, alajaina.

Puntuei erreparatuta atera daitekeen beste ondorio bat da, bakarkako gaietan jokatzeko delaghienez txapelketa. Izan ere, bertsolari guztiek batek salbu, beren puntuaziorik altuena bakarkakoan atera dute. Ezetz asmatu nor den hamarreko txikian bakarkakoan baino puntu gehiago lortu zituen? Beñat Gaztelumendi. Bertsolari bakoitzari buruzko estereotipoek bestelakorik pentsatzeko bide eman badizute, agian ordua da estereotipoak astintzeko.

Txapeldunaren agurra

Herriak ta hizkuntzak zuten norantzari gai gehio lotu zaio lehengo ardatzari ta munduak hartu dun itxura latzari aurre egiteko beraz laguna altza hi bultza hainbat borroka ederren martxari kontrapisu eginez eskuin balantzari txapela bete indar mingaina dantzari borroka irabazteko desesperantzari.

euskaltel





EGUNGO GAIAK

Bada dioenik bertsolariak “komunitatearen ahotsa” direla, eta txapelketa nagusia zilegitasun edo aitortza kontua ere bada, nor izendatzen duen bertsozaleen komunitateak ordezkari sinboliko.

Niri bertsolariak herriaren sabeliztun begitantzen zaizkit, eta bertso saioa konstelazio familiar bat iruditzen zait: hor ateratzen dira guztion aurrera eta egunerokoan bizi ditugun gaiak, egoerak, jarrerak, kontraesaneak, pentsamenduek, sentimenduek... jartzen diete ahotsa. Bertsolari batek kantatu duenak ez dizula zuri ezer esan? Lasai, publikoan jende asko egongo da bertso horiekin guztiz identifikatua sentitu dena eta izugarri baloratu dituenak. Beste bertsolari horren diskurtsoa kamutsa iruditu zaiola halako adituri? Agian niri zorrotzera irudituko zitzaidan, bertsolariak bere burua kokatu duen egoera horretan dagoenak baitaki ondoen zer sentitzen eta pentsa-

tzen den halakoetan... Bertsolarien lanari begira entzuten ditugu saioak, eta bertsolariak ari bagina bezala komentatzen ditugu ondokoarekin bertsoaldiak: baina ez ote du gehiago gutaz hitz egiten bertso bakoitza perzibitzeko dugun moduak?

Biribil azaldu zuen Nerea Ibarzabalek zazpi orduz eserita bertsoak entzuten aritzearen balioa: “erretako mundu honek sarri saltzen digu kea guztia denean bortxa, presa ta diru-trukea ekintza iraultzaile bat da elkarri entzutea”.

Lau (oraingo txapelketaren kasuan bost) urtez behingo konstelazio familiar nagusian ikusten da zein gai dauden pilleak gizartean, zein ideia eta diskurtsoak duten indarra, nondik eta nola hitz egiteko moduak duten zilegitasuna gure komunitatean une bakoitzean, zein ezau-

garri dituzten garaian garai publikoaren aurrean karisma dutenek... Problematikaren artean genero eta sexu aniztasuna, euskararen egoera, migrazioa, desberdintasun sozialak eta indarkeria matxista nabarmendu dira aurten. Gai horiei heldu zien Maialen Lujanbio bere bakarkako bi gaietan, eta lan horiek dira puntuaziorik altuena lortu dutenak saioko bertsoaldi guztien artean: besteren etxeak garbitzen zituen emakume etorkinaren larrutik kantatu zuenean 214,5 puntu lortu zituen eta gai horietako asko josiz krisi orokorrari kantatu zion bakarkakoan 209,5 puntu eskuratu zituen. Puntuatuena izan zen hirugarren bertsoaldia Alaia Martinen izan zen: 207,5 puntu lortu zituen emakume batekin sexu jolasean aritu zen lehena aldia deskribatu zuenean eta laugarren bertsoaldi puntuatuena, berriz, Amets Arzallusena izan zen, alaba transexualaren aitaren bidea hartuta ondu zuen lanean 203 puntu eskuratu zituen. ●

Bertsoaldi puntuatuena**Maialen Lujanbio, bakarka.**

Gaia: besteen etxeak garbitzen aritu ondotik, zure etxera ailegatu berri zara.

Lan bat finkorik ez daukat eta ordea, hiru lan-orde orduka egin eta indarrak hurrengorako ere gorde nire jabeen etxeak dira mila klasetako lore dizdizka hantxe ipintzen ditut euren zilar eta kobreak ezkertiarak, aurrerakoiak ta zenbait bikote progresu niri ordaintzat ematen dabiltz beltzen pare bat sobre nire lanaz harro banago baina harro bezain pobre.

Gazteak eta emakumeak ohi dituzte aukeratzen ongizatea ho(rre)la joan zaigu atzeratzen-atzeratzen... ze garbiketa beste lanekin ez baitute alderatzen eta guretzat kontratu batik ere ez dute eraten lan jardunetik zortzi t'erditan gaezan naiz ateratzen errekaduak egin ta gero neure etxea zeratzen... eskubideak borrokatzeko astirik ez zait geratzen.

Goizean goizik nire umeen motxilatoen karraio haiek utzita autobusa hartu eta patxadari aio autobusean nire gisako zenbait kide ta tokaio auzo aberatsak gu denentzako zerbaiz izaten darraio lan bat hobea, diru gehiago ai, izango banu nahio! Baina garbitzen, erratz pasatzen, hauts kentzen, hor nabil iaio gizarte zikin honi itxura horrela txukuntzen zaio.

Txapelduna**Maialen Lujanbio Zugasti**

Hernani, 1976

📅 2022, 2017, 2009

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

📅 GI: 2003

2.240 puntu

1.760,5 saioan + 479,5 buruz buru

Buruz burukoa**Amets Arzallus Antia**

Hendaia, 1983

📅 2013

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005

📅 NA: 2000, 2001, 2002, 2003

📅 Xilaba: 2008, 2010, 2012, 2021

2.166 puntu

1.697,5 saioan + 468,5 buruz buru

**Aitor Mendiluze Gonzalez**

Andoain, 1975

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001, 1997

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

📅 GI: 1995, 2007

1.507 puntu

**Sustrai Colina Acordarrementeria**

Urruña, 1982

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

📅 2022, 2017, 2013, 2009, 2005, 2001

📅 Xilaba: 2014, 2016

1.495 puntu



Alaia Martin Etxebeste
Oiartzun, 1987

🗳️ 2022, 2017, 2013
👉 2022

1.493,5 puntu



Beñat Gaztelumendi Arandia
Añorga, 1987

🗳️ 2022, 2017, 2013, 2009
👉 2022, 2017, 2013
👈 GI: 2015, 2019

1.443,5 puntu



Nerealbarzabal Salegi
Markina-Xemein, 1994

🗳️ 2022, 2017
👉 2022
👈 BI: 2021

1.435,5 puntu



Joanes Illarregi Marzol
Leitza, 1999

🗳️ 2022
👉 2022

1.421,5 puntu

👈 Euskal Herriko txapela jantzi duen urtea 🗳️ Zein urtetan izan da Txapelketa Nagusiko finalista
👉 Zein Txapelketa Nagusitan hartu du parte 👈 Herrialdeko txapela irabazi duen urtea

“ ”

“Aurten ez nuen baitezpada txapela irabazteko derrigortasun edo anbizioa sentitzen nire baitan”

Maialen Lujanbio Zugasti

Euskal Herriko txapela lortu du hirugarrenez Maialen Lujanbiok abenduaren 18an Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu zen bertso finalean. Aldaketaz beteriko finala aipatu du jada txapelketako beterano denak, bai taldearen konposizio, bere sentsazio pertsonal eta lekuarengatik. Txapel kopuruaren antzera, hirugarrenez tokatu zaio Amets Arzallus bertsokidearekin kantatzea buruz burukoan, hendaiarrak aipatu bezala, “bertsoaz harago doan egun horretan”.

 ELIXABET ETXANDI GOIENETXE  DANI BLANCO

Gai sozial eta politiko ezberdinetan ere kantatzera ausartu da hernaniarra, faxismoaren gorakadari, emakume langileen esplotazioari, homofobiari edo etorkizuneko borroka perspektibei oihartzun eginez. Maialenen sentsazioak eta perspektibak partekatu dizkigu txapeldunak.

Ez duzu zure lehen finala, jada ariketarekin ohituta zaude. Baina nola sentitu duzu zure burua aurtengo finalean zehar?

Egia da batzuetan korrontearen kontra bezala ibili behar izan naizela, nire gora eta beherekin, baina uste dut azkenean lortu dudala egoera sintonizatuago batean kantatzen. Labur esanda, poz handia da berriz ere txapela janztea. Barruan gogo bat sentitzen dut, baita zor bat ere taldekideekiko. Saioan zehar eta txapelketan zehar utzi dituzten ale bikainak ere aipatu nahi nituzke. Egia da oraindik saio ostean perspektiba falta-

rekin hitz egiten dudala gertatu denaz, baina orokorrean esango nuke lantsua izan dela aurtengoa.

Estatistiken arabera, finalera zuzen sailkatzen denak, hau da, pasa den edizioko txapeldun gisa sartzen denak ez du txapela lortzen. Zuk mentalizazio lan berezia egin duzu egun hau iritsi aurretik?

Banekien finala zaila izango zela, batez ere txapelketaren formatu eta kantatzeko formatuak berak inposatzen duen kortseagatik. Egia da kosta egiten dela mentalizatzen, baina nire bizipenekin eta txapelketako ibilbidearekin bestelako irakurketa bat egiten dut, eta uste dut ikasten dela txapelketan ere egoten. Adibidez, lehen finalak eta honek zentzu ezberdina hartzen dute. Aurten ez nuen baitezpada txapela irabazteko derrigortasun edo anbizioa sentitzen nire baitan. Egia da beste garai batzuetan sentitu izan dudala agian gogo eta

grin hori. Baina gaur ez nuen baitezpada gose izugarri hori sentitzen.

Hasierako agurrean aipatu duzu, aldaketak beti nahi baino beranduago etorri ohi direla txapelketan. Egia da aurtengo finala historikoa izan dela bai lekuagatik, Barakaldotik Iruñera igaro delako, baina batez ere lehenbiziko aldiko, emakume gehiago sartu direlako finalera.

Bai, noski, aldatu da. Batez ere, nik uste, finalaren esanahia aldatu dela, aipatu berezitasunak barne. Bestela, nirekiko finaleko aldaketak aipatzeko ere, egia da taldearen konposizio honek, gaur egungo garaiak edo nire ibilbide pertsonalak aldatu egin didatela finala bizitzeko testuingurua bera. Uste dut, hau guztiagatik, azken fase hau lasaiago bizitza permititu didala. Ez diot balioa kendu nahi finalari, batere, baina beste ikuspegi batekin bizi izan dut egun hau, esperientzia eta adinagatik, neurri batean. ●



“ ”

“Ilusio handia nuen eta leku egin diot emozio horri”

Alaia Martin Etxebeste

Ezin ekidin Nafarroa Arena BEC-ekin alderatzea. Publikoa otzanago antzeman da, olatuak ez dira berehala altxa eta burrunbatik ere, amaiera arte, gutxi. Behin lehertutakoan, ordea, uhin expantsiboa hedatu da plazan. Egun lantsua izan dela nabarmendu dute eguneko protagonistek eta, nola ez, bertsoetik harago doan eta etorkizunerako proiektioz osatutako egunak poz kolektiboa utzi duela.

 ELI PAGOLA APEZETXEA

 DANI BLANCO





Ganbarakoa

Elix (Elixabet Etxandi) eta biok, ohi bezala, noren hitzak eta esanak harrapatuko ibili gara, karaktere artean protagonista baten eskutik saiorako bidea egin nahian. Gaurko gidaria, lexiko eta esan era karakteristikoz, bere plaza eta plaza bere egin duenetako bat izan dugu.

Prentsaurrekoan ere ez du irribarra galdu. Mundu propio bat du Alaia Martinek eta mundu propio horretatik kantatzen digu. Bertsolari Txapelketa Nagusian lehen finala izateak, ordea, ez du esan nahi esperientziarik ez duenik. Plazari neurria ongi hartu dio hasiera-hasieratik eta beretik ematen asmatu du.

Txapelketako lehen saioan kantatzea egokitu egin zitzaion (Getxon) eta azkenean kantatzea merituz irabazi egin du (Iruñean). Prentsaurrekoan, inork galdetu baino lehen erantzun ditu Alaia Martinek askoren burutan zeuden galderak: "Egun handia izan da gaurkoa. Lortu dut gozatzea, momentuka bada ere. Txapelketan zehar lortu dudana izan da saioak disfrutatzea eta hori handia da. Eta esandakoa, gaur ere lortu dut horrekin konektatzea, behar bada, nahi bezainbestetan izan ez bada ere.

Zer biharamun utziko dizu Bertsolari Txapelketa Nagusiak?

Digestio motel xamarrekoa naiz. Esan dezaket pozik nagoela kantatu dudana kantatzeagatik eta kantatu dudana bezala kantatzeagatik. Finalak zer ikasi handia eman dit eta horrekin ere gustora nago. Sentitzen dut bide luze eta ederra dudala bertso-kide hauekin egiteko eta aurretik dugunaren ilusioz nago.

Ez dut esan gabe utzi nahi esker on handia sentitu dudala fokuetatik kanpora, Txapelketak dakarren atzeko lanean aritu direnekiko, jasotako zaintzagatik... hainbestekoa, ezen batzuetan deskontzentratzeko arrazoi ere izan zitekeen".

Gaur lehen bizipenak ekarri dituzu kantura eta, zer moduzkoa izan da finaleko lehen esperientzia?

Ilusio handia nuen eta leku egin diot emozio horri, agian, ez inteligenteki. Izan ere, bezperan lasai nengoen, gorputzaldi onean iritsi naiz, baina, kantuan, sentsazioa zen bluetooth-a bezala nenbilela, piztu eta itzali. Lanketa handia egin dut eta argi izan dut zeren bila nentorren eta bilaketa horretan, agian, nire momentua galdu dut une batzuetan.

Irribarre batekin eta konplizitatez kantatzera zentozela esan duzu eta agurrean konplizitatea eskertu. Nola bizi izan duzu Getxotik Iruñerainoko bidea?

Bide oso polita izan da eta horrela gogoratuko dut txapelketa osoa. Gaurkoari begira, berriz, egun handia izan da eta taldearekin ez ezik, taldearen parte izatearekin pozik nago. Gainera, poz hori handitzen da Maialenen txapelarekin.

Azken agurrean ere aipatu duzu.

Umetatik izan da erreferente garrantzitsu eta merezi zuen. ●

Etxekoak

Etxean ekoiztuak, garaikoak eta kalitatezkoak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi ditzagun gure baserritarren produktuak.

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoak!

Amaia Odriozola
Karabeleko ekonekazaritza
etxaldea EZB
Hernani

Gipuzkoako
Foru Alkandua
Diputazioa Foruak
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro




ETXEKOAK



Sei milioi euro banatu ditu Jaurlaritzak hedabide batzuen artean, ARGIA kanpoan utziz berriro ere

Bingen Zupiria buru duen Kultura Sailak sei milioi euro publiko banatu ditu hedabideen sektorean. Iaz bost milioi izan ziren, ezohiko dirulaguntza moduan, eta COVID19aren pandemiak eragindako kalteei aurre egiteko kontzeptupean joan dira bi diru partidak. Informazio orokorreko hedabide nazionalen artean bakarrik utzi dute kanpoan, ARGIA. *Aiaraldea*, *Arabako Alea*, *Hernaniko Kronika* eta *Hiruka* ere kanpo utzi dituzte, besteren artean.




Sei milioi euroetatik 5,5 milioi (%91,2) gaztelaniazko medioei eman die Eusko Jaurlaritzak, eta %8,8 euskarazkoei. Vocento taldeak (*El Correo* eta *El Diario Vasco*) 2.659.000 euro jasoko ditu, iaz baino 303.000 euro gehiago; Noticias Taldeak (*Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de laba* eta *Onda Vasca*) 953.560 euro, iaz baino 36.819 gehiago; SER irrati kateak 643.962 euro, iaz baino 123.718 gehiago; *Gara* egunkariak 309.597 euro, iaz baino 4.000 gehiago; Berriak 287.925 euro, iaz baino 2.502 gutxiago eta *Nervi6n-Gorbea* irratiak 278.638 euro, 53.872 gehiago.

Iaz, deialdirik egin gabe banatu zuten dirua; aurten publiko egin dute banaketaren deialdia. Lehengo urtearekin

alderatuta, hedabide gehiagoren artean banatu dute dirua, beste hamar hedabide sartu baitituzte banaketan, baina Jaurlaritzak aurten milioi bat gehiago bideratu du eta milioi hori ez da hedabide berrien artean banatu, erdia banatu da horien artean. Alegia, iaz lagundu zituzten hedabideek oro har diru kopuru handiagoa jaso dute aurten, nahiz eta CIESen arabera handienek irakurleak galdu dituzten paperean urtebeteen, eta dirua banatzeko irizpide gisa CIES (medioen audientziak neurtzeaz arduratzen den erakundea) hartu duen Jaurlaritzak.

“Eguneroko informazioa ematen duten komunikabideak” izatea da baldintzetako bat banaketan aintzat hartua izateko: irratiak, telebistak eta hedabide digitalak saritu dituzte, baina paperean

egunkariak baino ez, astekaria da kanpoan utzi duten formatu bakarra. Erabaki horrekin utzi dute ARGIA kanpoan, nahiz eta ARGIAk eguneroko informazioa ematen duen bere orrietan ere. 2021ean paperean astero eta bakarrik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa kontuan hartuta, 52.000 irakurle izan ditu CIE-Sen arabera –Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko irakurleak kontuan hartu gabe–, banaketa horretan dozenaka milaka euro jaso duten medio ugarik baino gehiago. Astekariko audientzia aintzat hartuta –Interneten argia.eus-ek dituen irakurleak alde batera utzita– ARGIAk 150.000 euro inguru jaso beharko lituzke azken deialdi honetan, antzeko audientzia duten hedabideek jaso dutenari erreparatzen badiogu.



6 milioietatik 0 €

ARGIA, Aiaraldea, Arabako Alea, Cr3nica Vasca, Dato Econ3mico, Digital NorteExpres, Hernaniko Kronika, Elhuyar, Hiruka

Infografia: ARGIA Datuak: **Eusko Jaurlaritza** Data: **2022ko abendua**

ARGIAren Interneteko lana bai, Jaurlaritzaren baldintza horretan sartzen da, baina CIESen 2021eko Interneteko datuak hartu dituzte oinarri, eta ARGIAk 2022ko datuak bai, baina 2021ekoak paperekoak baino ez dauzka, Internetekoak ez -CIES etxeari ordaindu egin behar dio datu horiek nahi dituen hedabideak, ordaindu ez duena eta datuak ez dituena banaketatik kanpo utzi dute-. Nahiz eta egunean 15-20 artikulua publikatu eta zenbait milaka bisitari izan, 2021eko datuak ez genituela argudiatuta utzi dute Interneteko banaketatik ere kanpo ARGIA. Hala, Internet eta astekaria barne hartuta, 6 milioi euro hauen banaketan 150.000 euro baino diru gehiago dagokio ARGIAri.

Jaurlaritzak, berak egindako hautu

Astekaria da kanpoan utzi duten formatu bakarra. Erabaki horrekin utzi dute ARGIA kanpoan, nahiz eta ARGIAk eguneroko informazioa ematen duen bere orrietan ere

eta jarritako baldintzekin, beste behin ARGIA kanpoan utzi du: aldizkariak baztertu ditu eta webguneen kasuan CIESen 2021eko Interneteko datuak ez ditugulako utzi gaitu kanpoan. Iaz berriz, kanpoan uzteko argudioa izan zen "egiturazko gastu gehien dituzten euskarriak" izan zituztela bakarrik kontuan. ARGIAk 2022ko banaketan honen ebazpenaren espedientea eskatu du eta zain gaude, irizpideak nola baliatu dituzten eta banaketa zehazki nola egin den xehe aztertzeko asmoz.

Irizpide eta baldintzak tarteko, inportantea da gogoratzea diru banaketaren deialdian Jaurlaritzak zehazturiko helburuak: "Herritarrek informaziorako eta kazetaritza-eskaintza plurala, askotarikoa eta independentea izateko du-

Bingen Zupiria buru duen
Kultura Sailak banatu ditu
sei milioi euroak.




EAJ

ten eskubidea” aldarrikatuz, “eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen jardura” bermatu nahi du deialdiak, eta bistan denez, ez du asmoa bete, besteak beste ARGIA kanpoan utzi duen heinean. Jaurlaritzaren deialdiaren hitzetan, “pandemian zehar euskal herritarrek egiazkoa, profesionala eta egiaztatutakoa den informazioa izateko duten eskubidea bermatu dute eta gaur egun ere bermatzen dute, desinformazioaren arriskuari aurre eginez eta herritarren alfabetatze mediatikoan lagunduz”. Oinarri-oinarrian hori jarri du helburutzat Jaurlaritzak, desinformazioaren aurkako protokolo, lan molde eta kode profesionalen berri emanez txostena eskatu digu Jaurlaritzak, baina desinformazio horri aurre egiten laguntzen dugun hedabideetako batzuk kanpoan utzi ditu.

DIRU PUBLIKOAREN BANAKETA DESOREKATUAREN BESTE ADIBIDE BAT

Euskarazko hedabideek euskara sustatzegatik legez dagokien dirulaguntzetan jasotzen dutena baino diru publiko askoz gehiago ematen diete EAEko instituzioek gaztelaniazko hedabideei, tartean publizitate instituzionalaren bidez eta urte amaierako diru partida hau medio. Berriro ere, agerian geratu da diru publikoaren zein indartzen eta zein baztertzen duten gure instituzioek, zeini ematen dioten sostengu ekonomikoeta zeini ez, joko-zelai berdinzalea eraiki beharrean, desoreketan sakonduz. Euskarazko heda-

Gaztelaniaz
nagusiki
5,5 milioi



Euskaraz
0,5 milioi


Jaurlaritzaren deialdiak aldarrikatzen duen “kazetaritza-eskaintza plural” horren kontra doa batzuei eta besteei ematen dieten tratu desorekatua

bideen arteko borroka sustatzeko arriskua ere badute halako banaketek.

Gaur egungo gizarteetan horrenbeste boterea duen hedabideen sektorean, diru publikoaren eragina nabarmena da. Zein medio indartu, zeini lagundu bizi-ruten, zein baztertu... instituzioetatik erabakitzen dute. Gaur egungo panorama mediatikoan dauden botere harremanak ez dira ezerezetik sortuak, urteetan landutako soroa da. Kurioski, Jaurlaritzaren deialdiak aldarrikatzen duen “kazetaritza-eskaintza plural” horren kontra doa batzuei eta besteei ematen dieten tratu desorekatua.

ARGIAk harro aldarrikatzen jarraituko du bere independentzia, hein handi batean gure komunitateak posible egiten duena. Komunitatea osatzen dugun ki-deon arteko elkartasuna dugu oinarri. ●

Lehentasunak diru publikoaren banaketan

 BEGO ZUZA ZABALEGI

A benduaren 2an izan genuen deialdiaren ebazpenaren berri. Bigarren ezarpena du Kultura sailak deialdi hori. 6 milioi euro baldintza ezin hobeetan: ez da ezer justifikatu beharrik, berdin du dirua irabazi eta akziodunen artean irabaziak banatzen badituzu ere... Eskubidea izango duzu deialdi honetan parte hartzeko. Hori bai, CIES enpresari ordaindu beharko diozu, CIESeko azterketan agertzeko.

Bigarren urtea da ezohiko deialdi hau ateratzen dena. Aurrekoan, 5 milioikoa izan zen, eta aurten 6 milioikoa (%20ko hazkundea). Aldiz, euskal hedabideetako deialdirako, Hekimenetik eman ditugun hiru urtetako negoziazioen ondoren %5eko hazkundea baino ez dugu lortu, eta kopuru horrek ez du lortu hedabide guztioi igoera hori aplikatzea ere. Nahikoa diru jasotzen dugula eta ezinezkoa dela kopuru horretatik igotzea, hori esan digute. Aldiz, deialdi honetan gauza xeber batzuk gertatzen dira: batetik, deialdia zabaldu egin da zenbait irratia eta telebistetara, baita hedabide digitalera ere, baina hazkunde horrek ekarri du dena 452.012,38 euro banatu direla hamar hedabide berrien artean, eta beste 550.000 euroak baliatu direla hobetzeko batez ere *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Álava*, *SER* irratia edo *Nervion* irratia kateak jasotako dirua.

Zein izan dira aurtengoan dirua banatzeko baldintzak? Sinpleak oso: bost langile baino gehiagoko erakundea izatea, eguneroko informazioa ematea, eta CIESen azterketan parte hartzen duten hedabideak izatea. CIESen arabera datuak izan dituzte kontuan diru banaketan egiteko, baina, berdina al da gaztelaniaz argitaratzen duen egunkari batek

Herri batek irakurle kritikoak edukitzeko, hedabide ezberdinak eta askotarikoak edukitzea ona da, baina ezin da lasterketa bera egin, hain baldintza ezberdinetan

duen irakurle potentziala, edo euskara hutsez argitaratzen duenarena? Berdin balio dute? Oso unibertso ezberdinetan mugitzen gara gaztelaniaz aritzen diren komunikabideak eta euskarazkoak; zenbat balio du euskarazko irakurle batek, gure unibertsoan? Errealitate horri benetan erantzuten al diote CIESen datuek? Kasu deigarriak daude: *El Correo* (2021eko CIESeko datuen arabera), lehen olatutik bigarren olatu 61.000 irakurle galduta ere, dirutan %10,85 gehiago jaso du. 2021ean 637.000 irakurle zituen CIESen arabera eta horren truke 1.608.716,91 euro jaso

zituen, eta 2022an, 576.000 irakurlekin, 1.783.281,73 euro jaso ditu.

Zaila da irakurketa lasai bat egitea. Gaztelaniaz argitaratzen duten egunkari horiek hartzen dituzte, gainera, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko foru eta udal nagusietako publikitate partida handienak, eta lasaitasuna eskatzen diozu zure buruari, informazioa modu zabal eta garbienean emateko irakurleei, baina nola utzi amorrua almohadaren azpian?

Bueltan-bueltan betikora iristen gara: borondate politikoak eragiten du zein doan aurrera, zein atzera, eta zein gelditzen den irteera-parrilan, beti egoera aldatuko den zain. Eta sentsazio hori da gaur nagusitzen dena. Borondate ona ikusi dugu azken urte hauetan Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ordezkariekin, baina gero horrelako deialdi berezi batek erabat deskolokatzen gaitu, eta berriro agerian gelditzen da zein den gobernu honek dituen lehentasunak. Herri batek irakurle kritikoak edukitzeko, hedabide ezberdinak eta askotarikoak edukitzea ona da, baina ezin da lasterketa bera egin, hain baldintza ezberdinetan.

Bai, “irrelebanteak” gara batzuentzat –halakoak entzun behar izaten ditugu korridoreetan–, baina ez gutxietsi euskal prentsak dituen euskal harpide eta kideak. Haiek, garai zailetan bezala, beren diru ekarpenekin ari dira sektore hau mantentzen. Dirulaguntzak jasotzen ditugu, bai, baldintza fiskalizatueta, auditoriak urtero eginez... Sei milioiko dirulaguntza berezi horrek erakusten du baita ere borondate politikoa izanez gero aukera asko daudela, eta zurruntasunetik atera eta benetako apustuak egiteko aukerak badaudela. Bitartean, aurrera egingo dugu. ●

ÁNGELA RODRÍGUEZ 'PAM'

“Emakumeen eskubideen aurrerapenak posizio erreakzionarioak eragiten ditu eremu guztietan”



Hurtzaroen bizi izan zituen argi-itzalen ondorioz hartu zuen Ángela Rodríguez 'Pam'-ek (Pontevedra, Galizia, 1989), Espainiako Berdintasuneko Estatu idazkariak, indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa. 15M mugimenduan parte hartu zuen, Podemos Galiciako idazkaria izan zen eta 2015ean, 25 urte zituela, Espainiako Kongresura iritsi zen, En Marea koalizioaren bigarren zerrendaburua zela. Berdintasun Ministerioan hitzartu gaitu luze eta zabal solastatzeko.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID F. SABADELL

Zarata mediatikoa alde batera utziz, goazen denboran atzera. Noiz eta nolakoa izan zen zure sozializazio politikoa?

Etxean politika beti egon da presente. Txikitatik eztabaida politikoak hurbiletik jarraitu ahal izan ditut. Oroitzen dut txikia nintzela telebistan jarraitzen genituela beti, adibidez, nazioaren estatuaren inguruko eztabaidak. Hautesle sozialisten alaba naiz, etxean Felipe González bozkatu eta gero Zapateroren bigarren legealdian desengainatu ziren. Horrek argi eta garbi markatu zuen nire sozializazio politikoa, gerora herrialdearen [Espainiako Estatuaren] inguruan eraiki nuen ikuspegian.

2015ean iritsi zinen Espainiako Kongresura. Nola bizi izan zenuen erakunde politikarako jauzi hori?

Hagitz gaztea nintzen eta txundigarria

izan zen. Ez bakarrik eremu maskulinizatu zelako, baizik eta helduena izateagatik ere bai. 25 urterekin urruti duzu helduaroa. Egokitzapen prozesua garrantzitsua izan zen eta, era berean, alde aurretik bizitako sozializazio politikoekin erabat desberdina; asanblada feminista batek ez du zerikusirik kongresurako hitzaldi bat prestatzearekin. Emozio eta itxaropen handiko oroitzapenak ditut, baina baita ziurtasunik ezarenak ere... Inpostorearen sindromea izan nuen, zalantzarik gabe.

Izan ere, 2021eko urrian Berdintasuneko eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu idazkari izendatu zintuzten. Nolakoa izan da lehendabiziko urte hau?

Egin dugun esfortzuaren fruituak biltzen ari gara. 2022a bukatzeak sexu askatasunerako legearekin, abortuaren legearen erreformarekin, trans legearekin, eta

Erantzukide Plana bigarren urtez inplementatuz erran nahi du programa betezen ari garela. Harro nago ezarri dugun agenda feministarekin.

Badago uste duenik Berdintasunaren Ministerioaren kontrako kanpaina mediatikoa dagoela. Zenbateraino ezabatzen ditu zarata horrek aipatzen dituzun aurrerapausoak?

Kontrakoa, azkenaldian emakumeek dituzten aurrera-egite eta atzerakaden inguruan bertzerik ez da solastatzen. Feminismoa bilakatu da gure herrialdeko eztabaida gairik garrantzitsuenetako bat, ez bada garrantzitsuena. Irekitzen den eztabaida bakoitzak erantzun bat du eta, hain da hotsandikoa, zenbaitetan badirudiela zaratak gainontzeko guztia itotzen duela. Baina duela pare bat urte erran izan balidate trans legeak edo hileko mingarrien baimenek egunkarien azalak ire-

kiko zituztela, ez nukeen sinistu izanen. Horrek islatzen du Ministerioak praktikatzten duen feminismoaren hegemonia.

Sare sozialek ere eragina dute honetan. Tokia eman diete orain arte espaziorik ez zuten emakume anitzi, baina, era berean, gorrotoaren lur aberatsa dira. Nola daramazu?

Modu anbibalentean. Saiatzen naiz ulertzen gertatzen zaigula emakume feministak garelako eta, beraz, arazo kolektibo eta egiturazkoa dela, indarkeria forma guztiak bezala. Saiatzen naiz, baita ere, umorearekin jokatzeko, irainak kudeatzeko lanabes ezinbertzekoa delako. Baina mingarria da, argi eta garbi. Ni iraintzen naute gizona eta itsusia naizelako, eta, noski, badira egunak zailagoa dela norbere burua ispiluan ikustea, Twitterren mila aldiz laidotzen zaituztelako. Horrek eragin zuzena du buru osasunean eta ezin da alde batera utzi. Hala ere, lortu dugu pairatzen dugun indarkeria hori ongi kontzeptualizatzea: ez zaigu gertatzen pertsona jakinak izateagatik, botere

posizioak ditugun emakume feministak garelako baizik.

Pasa den astean zuzenketa bat gehitu zenuten zigor-kodearen erreforman, 'Soilik baietz da baietz' legearen harira. Zertan datza akordio hori?

Zigor Kodeko arazoien azalpenen aldaketa bat da, berresten duena Estatuko Fiskaltza Orokorraren dekretuak dioena. Alegia, indarrean dagoen zuzenbide iragankorra existitzen da, eta zigor tartearak berak diren bitartean ezingo dira zigorrak txikitu. Neurri honekin gobernuak adierazi nahi du norbere nahiaren arabera ko interpretazioak nagusi direla hainbat epaileren artean.

Interpretazio horiek polemika ekarri dute, hainbat erasotzaile aske gelditu direlako.

Bai, baina, funtsean, arazo politikoa da. Araua irmoa da eta inplementatu beharra dago. Emakumeen eskubideak onartzen dituzten lege guztietan bezala, denbora

behar da arauaren ezarpena egokitze-ko. 2004an Genero Indarkeriaren Legea onartu zenean, 180 helegite aurkeztu ziren, eta urte anitzetan lege hori ez zen aplikatzen, konstituzioaren aurkako helegiteak zituelako. Orduan, legea gaizki zegoela erran zitekeen. Aldiz, argi gelditu zen botere judizialaren eremu batek mesfidantza zuela emakumeen eskubideak babesten zituen legeak aplikatzeko. Egerra bera errepikatu da orain. Agerian dago, eremu guztietan, emakumeen eskubideen aurrerapenak posizio erreakzionarioak eragiten dituela sarri.

Ana Requena kazetariaren ustez, polemika honetan punitibismoaren kontrako pedagogia egiteko aukera galdu zenuten. Zer deritzozu?

Alde batetik, Zigor Kodeak lanabesa izan behar duela, baita feminismoarentzako ere. Erasoa jasan duten emakume anitzentzat ezinbertzekoa da kartzela zigorrara, euren justiziarako, egiarako eta erreparazioarako prozesua egiteko. Feministok

“Iraintzen gaituzte, botere posizioak dituzten emakume feministak garelako”



ezin dugu erabaki emakume batek behar duen erreparazio mota. Bidegabekoa da. Bertzalde, punitibismoaren eztabaida eskuin muturrak jartzen du mahaigainean, ez geuk. Beraz, kontrakoa, Zigor Kodearen erreforma honek bilatzen duena da epaileei lanabesak ematea inpunitate hori gaintitu eta askatasun sexualaren delituak jazarri ahal izateko. Beraz, punitibismoaren eztabaidan tematu ordez, VOX-ek egiten duen bezala, saiatu gaitezen aztertzen zergatik epaile batek uste duen, adibidez, garraio publikoan gizon bat emakume baten aurrean masturbatzea ez dela delitua. Jazargarria izan behar du eta feminista izan daiteke.

Azkenik, trabak gaintitu eta kongresuak onartu du trans legea.

Prozesu ikaragarri gogorra izan da. Dezepzio handia eragin du, LGTBIQ+ kolektiboak ikusi duelako sozialistek zalantzak zituztela. Batez ere, PSOE betidanik izan baitzen Espainian kolektiboaren eskubideetan aurrera egiteko gehien egin zuen alderdi politikoa. Era berean, argi gelditu da erakundeen, gizarte zibilaren eta aktore kulturalen arteko eztabaida posible dela, helburu komunak daudenean. Trans legea ez litzateke posible izanen Berdintasun Ministeriorik gabe, baina ezta LGTBIQ+ mugimenduak legean borrokatu duen zentimetro bakoitzik gabe ere, ezta *Veneno* telesaila gabe edo Carla Antonelli, Mar Cambrollé edo Marina Sáenz emakume transik gabe ere. Borroka honetan luma anitz utzi ditugu.

Feministatzat izendatzen diren hainbat kolektibo legearen kontra agertzen dira, emakumeak ezabatzen omen dituelako. Zer deritzozu?

Transfobiak, gorroto diskurtso orok bezala, ez du tokirik feminismoetan. Feminismoak pluralak dira eta eztabaida onartu behar dute, baina ulertezina da. Berriz diot, herritarren giza eskubideen inguruan eztabaidatzeak ezin du tokirik izan feminismoa bezalako proiektu demokratiko batean.

Abortuaren legearekin, Espainiako demokraziaren historian lehenengoz, prozesu parte-hartzailea ireki zenuten.

Egia errateko, prozesu parte-hartzailea ireki dugu Ministerioan landu ditugun lege guztietan. Azpimarratzen dut, sarri kritikak jaso ditugulako, Ministerioan ez omen ditugulako gizarteko aktoreak entzuten ezta autokritikarik egiten. Baina



“Feminismoak pluralak dira eta eztabaida onartu behar dute, baina transfobiak ez du tokirik, ulertezina da”



kontsulta publikoen prozesu guztiak gardentasunean daude, eta edonork ikusi dezake legeak aldatu direla hiritarren eta kolektiboaren ekarpenen bitartez.

Abortuaren legeari dagokionez, guretzat garrantzitsua zen mahai berean biltzea emakumeak eta medikuak. Elkarriketa hori ezinbertzekoa da, legeak eragina duelako emakumeen eskubideetan eta komunitate medikoan. Legea hobetzeko prozesu interesgarria izan da.

Azkenik, indarkeria obstetrikoa ez duzue sartu. Kezkatzen zaitu?

Bai, kezkatzen nau, gehien bat PSOEk hainbertze beldur duelako funtsezkoa den erabaki hori hartzeko. Espainian indarkeria obstetrikoa dagoela agerian dago, hala salatu dute emakume anitzek eta, gainera, Nazio Batuen Erakunde-ko (NBE) CEDAWek ere salatu du. Uste dut denbora kontua dela; bertze hainbat konturekin gertatu den bezala, PSOE arrastoan sartuko da eta emakumeak praktika horretaz babestea ezinbertzekoa dela onartuko du.

Arazoa da, bitartean, emakume anitzen eskubideak urratzen direla ospitaleetan. Espainiak bi sententzia ditu, hamar urteko borrokaren ondotik NBEk arrazoia eman zion uztailean Nahia Alkortari. Nola uler daiteke Espainian negazionismoa eta inpunitatea nagusitzea oraindik?

Horrek denak azaltzen du Podemos bezalako alderdi politikoaren beharra. PSOEk okerrago gobernatzen du bakarrik dagoenean, ohituta baitago proposatzen duen programaren zati txiki bat bakarrik betetzera. Eta, bat-batean, hiritarren alderdi batek eskatzen dio programa osoa implementatzea. Seguruena, PSOEk bere programaren osotasuna beteko balu, ez litzateke bere ezkerrean alderdirik egonen, edo hagitz guti eta erradikalak. Gure lana da sozialistei oroitaraztea badirela hainbat politika ezinbertzekoak direnak, eta ez garelako konformatuko erakundeetan egotearekin, aldaketak sustatuko ditugula.

Ulertzen duzu erditze errespetatuaren aldeko aktibismoan dagoen sumindura?

Noski, eta berriz diot PSOEren erabakia izan dela.

Baina, zer egingen duzue inpunitate horrekin bukatzeko?

Gure konpromisoa bere horretan dago, Osasun Ministerioarekin solastatuko dugu, posible den heinean, gutienez, emakumeen eskubideak babesteko legeak egiteko. 2007an Osasun Ministerioak Erditze Normalaren Harretarako Estrategia sustatu zuen, baina hori ere ez

zen bete. Hark proposatzen zuen erditze errespetatua bermatzeko ezinbertzekoa zela emakumeak erdigunean jartzea, episiotomiak eta zesareak murriztuta, bertzeren artean. Osasun, Sexu eta Ugalketa estrategia bat behar dugu, abortuaren legean barneratu ditugun jardunen bitartez protokolo komun bat eraiki eta ospitale guztietan betetzeko.

Francisca Fernández Guillén abokatuak azaltzen du, indarkeria obstetrikoa baztertzeko lehen urratsa dela NBERen gomendioak betetzea. Parlamentutik pasatzea ere ez da behar, ordenamendu juridikoa delako. Zergatik ez da egiten? Borondate politikorik ez dagoelako. Berriz diot, PSOEk ez du nahi.

Amatasunaz ari garela, eskubideen berdintzea aurrerapausoa izan zen. Hala ere, hiritarren zati batek gutietsi du, erditu dutenen baimenak hiru hamarkadatan izoztu direlako, luzatzeko aldarri historikoa nagusitu den arren.

Baimen berdin eta transferiezinak lanabes baliagarriak dira emakumeen eta gizonezkoen artean dauden arrakalak ixteko. Datuek adierazten dute geroz eta gizonezko gehiagok tramitatu dituela baimenak eta, beraz, norabide horretan lan egiten jarraitzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure nahia zen lege horretan familia guraso-bakarren baimenak luzatu ahal izatea, bigarren gurasoaren asteak ere izateko, baina gure bazkidea ez dugu konbentzitu.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) amagandik edoskitze eskusiboa gomendatzen du lehendabiziko sei hilabeteetan. Hori bateraezina da hamasei asteko baimenarekin.

Gure proposamena zen hamasei astetik 24ra luzatzea, eta hori ere ez dugu lortu, baina espero dugu legea parlamentura iristea konpromiso hori barnerratuta. Egia da Espainiako presidentek behin baino gehiagotan berretsi duela hamasei asterekin nahikoa dela, nahiz eta OMERen gomendioek kontrakoa erraten duten.

Amaitzeko, nolakoa da zuen gobernu bazkidearekin harremana?

Sarri badirudi gobernuaren *lerro askea* garela eta ez da egia. Noski, politika guztien atzean eztabaida iraunkorra eta lan handia dago. Egia da Espainiaren tradizio politikoan hori berria dela. Baina, argi eta garbi, Berdintasun Ministerioa izango da Espainiako Gobernuan, legegaldia bukatutakoan, harrotasun handienarekin erran ahalko duena agenda politikoa bete duela. Ez dut uste hori ministerio guztiek erran dezaketarik. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Euskararen alde egiten duzuen ikaragarriko lana bultzatze aldera”

Antzuolako Miren

“Kazetaritza independenteari ekarpen txiki bat egiteko”

Donostiako Ana

“Komunikabideek gure gizartean duten eragina oso garrantzitsua da, zoritxarrez, hedabide gehienak kapitalaren menpe daude. Horregatik, hedabide independenteak sustatzea ezinbestekoa da eraldaketa politikoa gauzatu nahi badugu”

Gasteizko Jon

“Artikuluen kalitateari esker eta aldizkariak defenditzen dituen baloreei esker hartu dut erabaki hau”

Biarritzeko Argitxu

“Berezkoa Ta Naturala (BTN) podkastarengatik”

Iruñeko Arantxa

“Hitz gakoak: euskara, euskal kultura, feminismoa, ekologia, politika, historia...”

ARGIAk intereseko gaiak jorratzen dituelako”

Terueldik Iraidek

URTE AMAIERAKO HARPIDETZA KANPAINA



Baliozko arrazoiak ARGIAkoa egiteko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA


Inork ez zidan esan, ARGIAkoa izatea zein nekeza den, hobe nuela hautatzea *El Diario Vasco*-ren irakurle izatea... Bai, arrazoi duzu, irakurle. Ruperrri lapurtu dizkiot hitzak, pixka bat moldatuta. Baina sarri burutik pasa izan zaidan ideia islatzeko balio dit. Balio. Horiek lanak ematen dizkigutenak. Ez da erraza balioetan oinarritutako bizitza bat eramatea. Bizitza koherente xamarra nahi badugu, bederen. Zenbat kontraesan, zenbat buruhauste...

Gure etxea gobernatzearekin nahiko lan ez eta jendea konbentzitu behar, gainera! ARGIAk harpidetza kanpaina berria jarri du martxan eta barruko zalantzak, zailtasunak, kontraesanak eta korapiloak erakutsi ditu pantailan, umoretsu, ironiaz, komunitateari ARGIA babes dezan gonbita egiteko. Kazetaritza independentea bultzatzeko komunitatearekiko dependentzia aldarrikatzea, ez al da joko polita? Urrutira joan gabe, lehendik ere ARGIAren baloreak ondo ezagutzen dituen jendea da eraka-

rri nahi dena, azken batean jendearen babesarekin lortzen delako kazetaritza independentea egitea eta ekonomikoki ere komunitateko kideen diru-ekarpena baita ARGIAren sostengu nagusia.

Hiru Damatxok egin ditu bideo-spotak eta kazetari eta langileak jarri dituzte aktore-lanetan. Horrela lortu dute etxeko ateak ireki eta barrua naturaltasunez erakustea. Noski, ahaztu gabe harpidetza kanpaina dela, aprobetxatu dute ARGIAren harpidetza eredu berezia modu simple eta ulergarri batean azaltzeko; zeina egungo testuinguru sozial eta ekonomikoarekin bete-betean datorren halako eredu bat, elkartasunean oinarritzen dena, eta besteak beste, euskara ofizial ez den tokietan euskara ikasten ari direnei aldizkaria doan bidaltzea bezalako ekimenak ahalbidetzen dituena.

Kanpainako bideoak ikusi nahi badi-tuzu sartu ARGIAren Telegram kanalean eta hor aurkituko dituzu. Argiago ezin da esan. Egin ARGIAkoa! ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Enperadore berri bat txanponaren aurkian

Transilvania (egungo Errumania), 1713. Erromatar garaiko urrezko txanpon bat, aureo bat, aurkitu zuten. Erromatar aureoek izan ohi zuten purutasunik ez duenez, faltsua izan zitekeela ere pentsatu zuten, eta txanpona Glasgoweke Unibertsitateko Hunterian museoan egon da gordeta 300 urtez, numismatika bilduma batean ia ahaztuta. Baina berriki University College Londoneko ikerlariak pieza aztertu dute eta txanponaren aurkian, garbi, erromatar enperadoreen zerrendan ez dagoen izen bat ikusi dute: Esponsiano.

Ustezko enperadoreak koroa du buruan eta, alboan, zehazki, IMP SPONSIANI letrak ageri dira. Orduan, erromatar iturriek zergatik ez dute enperadore hori aipatzen? Ifrentzuak ez du erantzunik ematen.

Togaz jantzitako bi pertsona daude, horietako batek txirula moduko bat dauka, eta C AVG letrak daude idatzita. Logikoa dirudi hizki horiek *Caesar Augustus* esan nahi dutela pentsatzea, enperadoreen titulu ofiziala baitzen. Baina adituek ondorioztatu dute Caius Augurinus izenaren laburdura dela eta Errepublika garaiko pertsonaia bati egiten diola erreferentzia. Esponsianoren txanpona K.o. 260. urte inguruan datatu dutenez, ikerlariak uste dute, besterik gabe, K.a. 135 urteko txanpon bat erabili zutela eredu gisa eta bestelako ondoriorik ezin dela atera.



THE HUNTERIAN, UNIVERSITY OF GLASGOW

Hortaz, *Plos One* aldizkarian argitaratu berri duten artikulua testuinguruari erreparatuta osatu behar izan dute. Esponsiano ez zen sekula enperadore "ofiziala" izan, Erromak ez zuen haren agintea aitortu. Ziurrenik bere boterea Danubio iparraldera mugatu zen, Daziako probintziara. Izan ere, III. mendean ezegonkortasuna nagusitu zen Inperioan eta metropoliak probintzia eta muga askoren kontrola galdu zuten. Egoera horretan, hiriburuarekiko harremanak etenda, ejertzitoko komandante batek, Esponsianok, probintziaren kontrola hartu zuen, eta aginte zentralaren eraginik gabe gobernatu

zuen 260eko eta 270eko hamarkada inguruan; bere burua enperadoretzat jo zuen eta txanponak ere eginarazi zituen. Beti ere ikerlarien hipotesiaren arabera, Esponsianoren helburua probintziako populazioa babestea eta tribu etsaien inbasioei eustea zen, eta ez Erromako boterearen aurka egitea. Hau da, Esponsiano ez zen matxinatu, beharrak bultzatutako erabaki praktikoa hartu zuen. Eta, garai liskartsu haietan hiriburuarekiko komunikazioa ia ezinezkoa zela kontuan hartuta eta Esponsianoren beste inolako erreferentziarik ez dagoela ikusita, Erroman ez ziren konturatu ere egin. ●



PARCO ARCHEOLOGICO DEL COLOSSEO

Koliseoko mokaduak

Erromako Koliseoko Parke Arkeologikoko ikerlariak anfiteatro ezaguneko estoldak aztertzen aritu dira, eta han aurkitutako janari arrastoei esker jakin dute, gaur egun bezala, garai hartako ikuskizunetan ere ikusleek mokaduak jateko ohitura zutela.

Zehazki, eraikinaren hegoaldeko 70 metro estolda industu dituzte, eta beste

objektu batzuekin batera, fruta arrastoak topatu dituzte, nagusiki: mahatsak, meloiak, gereziak, pikuk, aranek, olibak, intxaurrak, urrak eta pinaziak. Beraz, gladiadoreen borrokek harmaitako ikusleen odol gosea asetzen zuten, baina gosea fisikoa gaur egun baino modu osasungarriagoan ase ohi zuten, fruta janez. ●

PORRU ETA GATZ, BARAZKARI LATZ



Aspaldi aipatu genuen: aurrez ezagutu gabeko har gogaikarri bat ekarri genion porruari (*Allium porrum*), taratulu gisara zuztarraren mamia erdiz erdi zulatu eta jateko alferrik galtzen zuena; *Acrolepiopsis assectella* sitsaren harra zen.

Izurrite hori beste har batek ordezkatu du; “ordezkatu” diot, hau azaldu denez geroztik ez baitut haren arrastorik ikusi. Har berria euli batena da, *Phytophthora gymnostoma*. Helduek eta harrek izerdia zurruputzen dute. Harrak gero porruaren beheko aldean pupa edo krisalida sortuko du, heldu bihurtzeko metamorfosian. Goitik beherakoan porruaren hostoak zartzatzen dituzte, horiek ere alferrik galduz.

Bi harrok berriak dira gure paisaian. Ez dute oraindik Euskal Herri osoa ezagutzen; pixkanaka, bailaraz bailara, azokaz azoka badoaz hara-hona. Izan ere ez dute areriorik; laster txoriren bat edo beste intsektujalaren bat bera jaten tematzen ahal da!

Areriorik ez eta izenik ere ez dute euskaraz. Iritsi berriak-eta, ezagutze soilak nahiko lan ematen digu. Baina ahalik eta azkarrena jarri beharko genieke izena, laster gara bestela erdara baten edo bestearen izena geuretzen... Niretzat egokiak lirateke

“porruaren sitsa” eta “porruaren eulia”.

Izena baduena porrua da, eta baita beste barazki asko ere. Barazki berriak ere bada-kartzagu kanpotik. Porrua ere halaxe etorria izango zen. Lehenengo zibilizazioetako zen sumeriarrenean, porrua ezagutzen zuten eta itxuraz erromatarrek ekarri zuten Europa aldera. Galesko ikur nazionala da, VII. mendean izandako guda batzuetan galestarrek aurkariengandik bereizteko porrua soinean eramaten zutela-eta oroi-garri. Anglosaxoiek haziarekin hortzetako pasta egiten zuten. X. mendean Frantziako Clunyk abadiako Odon Meung abadeak bere *Macer Floridus* lanean jaso zituen porruak zituen erabilera terapeutiko egariak, tartean gaitz benereok sendatzeko.

Guk batez ere jateko erabiltzen dugu. Barazki oso hedatua da gure kulturaren, gurearen hegoaldekoetan ez bezala. Barazkiek gure historian osatu dituzten istorioak bildu gabe daude, lan hori eginkizun bizi gara. Elikaduraren historia erregosi gabe dugu euskaldunok. Bitartean esaerek diote: “Porru eta gatz, barazkari latz” eta “Arto eta porru, barazkari gori”. Izan ere, barazkiz osatutako barazkaria barazkaltzen dugu. Bazka, bazkari, barazki, barazkari, barazkaldu... ●



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo! Harrak azaldu zaizkit brokoli artean... zeozer ba al da uxatu edo akabatzeke ekologikoan? Ander

Har handi horiek ikusten errazak dira. Brokoli sail izugarria ez baduzu, bilatu, bildu eta akabatzea da errazena. Hostoan kosk non egin duen nabarmena da, zulo handia uzten baitu eta erraz topatuko dituzu harrak. Nahi baduzu, hostoak eta buruaren azpiko alde errautsez zikindu daitezke; gustuko izango ez dutenez, beste nonbaitera alde egingo dute. Hala ere adi ibili, ez baitira urrutira joango. Tratamenduetara jota, intsektizida erabili dezakezu: xaboi potasikoa, *Bacillus thuringiensis* eta Neem.

Non eros ditzaket zure liburu guztiak? Maih Altuna

bizibaratzea.eus edo argia.eus webgunen sartu eta Azoka atalean dituzu bertatik eskatzeko moduan; baita ARGIAren +34 943 37 15 45 telefonoan ere. Etxera bidaliko dizkizute zuzenean. Liburudenda askotan ere eskura dituzu.

ZUNBELTZ

NORK BERE PROIEKTUA ABIATU AURRETIK ABELTZAINZAN TREBATZEKO GUNEA ANDIAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Funtzionatuko al du martxan jarri nahi dudan nekazaritzako edo abeltzaintzako proiektuak? Nola egingen diot aurre lurra eskuratzeko zailtasunari?”. Beste galdera askoren artean, horiek izan ohi dira lehen sektoreari lotutako proiektu bat abiatu nahi duten hasberrien galderak. Nafarroan, Andia Mankomunitateak Zunbeltz nekazaritzako test gunea jarri berri du martxan, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluarekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Gobernuarekin elkarlanean. Nekazari eta abeltzain berriei babes legala, formazioa, jarraipena eta euskarri fisikoak –lurra eta azpiegiturak– eskaintzen dizkio test guneak.

Andiako Mankomunitatean despopulazioaren aurka abian dituzten hainbat proiekturen bueltan sortu da Zunbeltz nekazaritzako test gunea. “Ipar Euskal Herriko Trebatu elkarteak ezagutu genuen, eta interesgarria iruditu zitzaigun gurean ere belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko eta nekazari berriei bidea errazteko”, azaldu du teknikariak. Egitasmoaren bultzatzaileen artean elkarte bat martxan jartzea izan zen lehen lana, eta bigarrena, martxan jarri nahi diren proiektuak garatu ahal izateko lurra eta azpiegiturak eskuratzeko. “Nafarroako Gobernuaren bi lursail ditugu momentuz, 10 urtetarako hitzarmen bidez guk kudeatuko ditugunak”, dio.

Jendea proiektura batuko ote zen zaila zuten hasieran, baina sorpresa ederra eraman zuten. “Bederatzi pertsona aurkeztu ziren, guztira, zazpi proiektu. Oso interesgarria iruditu zaigu, gainera, horietako bi proiektu kolektiboak



izatea”, dio. Txerrien, oilaskoen, ahuntzen eta behien hazkuntza proiektuak daude aurkeztutakoen artean, baina momentuz, ahuntzena bakarrik dago martxan, besteak baimenak jasotzeko esperoan daudelako. “Proiektu bakoitzarekin hitzarmen zehatza dugu, bakoitzaren jarduerari eta egoerari egokituia”, azaldu du teknikariak. Ahuntzainaren kasuan, esaterako, urtebeterako hitzarmena sinatu dute. “Ideia ez baita ekoizpen fasean soilik trebatzea, prozesu osoan baizik: komertzializazioa, salmenta...”. Eredu ekologiko eta txikiko proiektueta- ra mugatu da Zunbeltz gunea.

TEST GUNEA, BAINA EZ FISIKOA SOILIK

Trebatu ahal izateko lurra eta azpiegiturak –artegia, eskorta mugikorra

eta jezteko makina, esaterako– ez ezik, formazioari eta babes legal eta emozionalari ere garrantzia handia ematen dio test guneak. “Unibertsitatekoekin eta NNPEKkoekin egiten dituzte formakuntzak proiektuko ‘testerrek’, baina ‘baserritarretik baserritarera’ izendatutako metodologia ere asko erabiltzen dugu; alegia, abeltzainak beraiek izatea bitartek egiten dituztenak, hasberriek zuzenean haiekin partekatzeko galderak eta arazoak”.

Hego Euskal Herrian nekazaritzako test guneen aitzindarietako bat izan da Zunbeltz, nahiz Bizkaian Haztegia ere badagoen martxan. “Beste eredu batzuk esploratu behar ditugu, bestela, jango gaituzte. Ikusi dugu dena motel doala, baina poliki-poliki lortu daitekeela”. ●

“ ”

Punk munduak iraganera jo ohi du, baina bizitza eraldaketa da

Aitor Aldanondo

Harria deitu dio Aitor Aldanondok bere ibilbideko proiektu pertsonalenari. Fiachras taldeaz geroztik ohi izan duenez, folk kutsuko hamabi abesti osatu dituzte oraingoan, estreinakoz gehienak bere uztakoak. Eraldaketa pertsonal erabatekoan dabilenaren bizipenak biltzen ditu diskoak, eta auzi horiek hartu dute elkarrizketaren zati handiena ere. Edonola, egungo musika panoramaz ere aritu gara, belaunaldi berriez, punk izaeraz, eta beste zenbait kontuz.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Brigada Criminal taldeko gitarrista izan zen lehendabizi, gero Fiachras sortu zuen Haritz Artolarekin batera, Bizardunak-en azken bi diskoetan ere taldeko kide izan zen, eta What a band-en baxulari azkenik. Pandemia garaia iritsi zen ondoren, eta asko bezala, bere buruari begira jarri zen orduan Aitor Aldanondo (Bergara, 1978). Aspalditik egitekotan eta artean egin gabe zeukanari ekiten ausartu zen: aspaldian grabatuta zeuzkan abesti zatiak elkarrekin lotzen, eta uzta propioko sorta bat osatzen. Hasieran bi proiektu egin nahi zituen: bata Maitane Azkarate bikotekidearekin, eta bestea Ekaitz Ubera adiskidearekin. Ez zen posible izan: “Maitane haurdun geratu zen, ume bat etorri da, ez geneukan ezertarako denborarik... eta azkenean esan nien bi proiektuekin ezin nuela, eta nahi bazuten biak bakarrean bilduko genitue-la”. Azkaratek diskoko kantu batzuetan abestu du, Uberak bi abesti egin ditu,

eta gainontzekoak Aldanondok berak eginak dira, Guille Sanz batera jotzailarekin batera prestatuak asko. Musikari ibilbidean zehar ezagututako hainbat lagunek kolaboratu dute diskoan: Iñigo Cabezafuegok, Haritz Artolak, Adolfo Alcocerrek eta Fredi Pelaezek, kasurako. Denen artean eman diote forma *Harria* taldearen lehendabiziko lanari. Folk kutsuko hamabi kantuz osatua da, nahiz eta kantu bakoitzak duen bere zigilu propioa –psikodelia kutsukoak batzuk, erritmo latinoetara jotzen dutenak bestetzuk, eta baita beste askotariko kapak dituztenak ere: oinarri elektronikokoak, sokazko konponketak, eta beste-. Bergarako mendialdeko baserri batean elkartu gara elkarrizketarako, pandemian zehar entseatzeko apropos prestatutako areto batean, beheko suaren epelean.

Ibilbide luzea egin duzu musikan, beti gitarrista modura. Aldiz, Harria da orain arteko zure proiekturik

pertsonalena. Zureak dira diskoko abestirik eta letrarik gehienak.

Bai, azkenaldi luzeko pertsonalena bai behintzat. Betidanik egin nahi izan dut disko bat nire kantuekin, nire hitzekin, eta nik abestuta. Kontua da nahiko eskasa naizela kantatzen, eta erronka handia zela. Bizitzako beste alderdi batzuekin bezala gertatzen zait: lehen furgoneta batekin aritzen nintzen lanean, garrarioan; banekien utzi egin behar nuela, baina, era berean, nola utzi? Musikan ere berdin. Banekien disko hau egin behar nuela, baina nola egin? Eraldaketa bat bizi behar duzu: pixkanaka hasten zara gerturatzen, beldurrak kentzen... Hasieran ez duzu ikusten, pixkanaka irudikatzen duzu eta egiten amaitzen duzu. (Haritz) Artolarekin erraza zen abestiak egitea: oso tipo emankorra da, biharko lau kantu egin behar badira egiten ditu, eta tartean beti *hit*-en bat. Baina gogoan nuen sortzerakoan autonomia izateko.



...s para cocinar

...s para cocinar



Badira urte batzuk abestiak sortzen hasi zinela...

Kabiak agian edukiko ditu zortzi urte. Introak hiru bat, *Hil ala bizik* ere badu denbora pixka bat. *Hau dena bukatzen denean* duela gutxi atera zitzaidan, kolpetik, eta gainerakoak ere berri samarrak dira. Normalean, abesti zatietarako ideiak grabatzen ditut mugikorrean, eta hasten naiz pentsatzen zein zati elkar daitezkeen. Tartean arrarokeria batzuk egitea ere gustatzen zait. *Iluna eta argian*, adibidez, rock ilunetik musika latinorako jauzi bat dago. Abesti horren hitzak Mikel Garatek eginak dira, baina diskoaren ideia globala biltzen dute: barne alkimia, eraldaketa...

Bizimodu honen gogortasuna aipatzen da sarri hitzetan. Baina beti sumatzen da garai hobeak iritsiko direlako esperantza ere.

Asko kosta zait hitzak egitea. Aurreko taldeetan ez dut sekula hitzik idatzi, baina oraingoan egin beharra neukan, beste inork ez baitzituen egingo. Uste dut diskoa oso positiboa dela. Askok esaten didate: "Jo, a zer letrak, zenbat heriotza...". Nahita jarri nuen diskoaren barruan esaldi bat: *memento mori* (gogoratu hilko zarela). Beraz, disfrutatatu bizitzaz. Mundu guztia sumatzen dut beldurtuta, lanarekin, bizitzarekin... ez dakit, baina bizitza orain gertatzen ari da. Urte batzuk daramatzat bilaketan: lana utzi nuen, langabezian egon nintzen, orain beste lan batean nabil, bihar auskalo. Horixe da alkimiaren funtsa: bizitzako heriotza sinboliko txiki horietatik nola birjaiotzen garen.

“ ”

Nahita jarri nuen diskoaren barruan esaldi bat: ‘memento mori’ (gogoratu hilko zarela). Beraz, disfrutatatu bizitzaz

Eta zer da zuk atzean utzi duzuna?

Bizitzako aldi bat –gaztaroa, pentsatzen dut [barrez]–. Asko kostatzen da parrandaren espiraletik ateratzea. 25 urteko gazte bat zarenean, munduko zentzu guztia dauka parranda bat egiteak: lagunak, barreak, ligoteoa... Gertatzen da, gainera, talde batean jotzen baduzu oso zaila izaten dela musika eta alkohola disoziatzea. Hor zaudenean, buruak ez dizu ondo funtzionatzen, gauzak ahanzten hasten zara, tontokeriak egiten, aje emozionalak edukitzen dituzu... 35 urte bete eta oraindik hor bueltaka zabiltzanean, esaten duzu: "Hemendik atera beharra daukat". Niretzat orain horrek guztiak ez dauka batere zentzurik. Nuevo Catecismo Católico-k (NCC) kantatzen zuen "no quiero cambiar" (ez dut aldatu nahi). Bada, primeran [barrez]. Ez, bizitza eraldatzen joatea da, eta aldatzen ez bazara, kontu txarra. Punkaren eta rockaren munduan badago beti lehengora jotzeko joera bat: "Ez donk amaitu" antolatu dute berriki Arrasaten, eta berri denak 80ko hamarkadara begira. Duela lau egun arte txosnetan *Sarri, sarri* entzuten genuen...

Zeri egiten dio erreferentzia Harria izenak?

Ez da gauza bakar bat, eta ez du izugarritzko sakontasunik biltzen. Azaleko irudiko harri hori –Bergarako Elosumendin kokatua– niretzat oso toki sinbolikoa da, aitari hainbat agur egin nizkiolako bertan. Sonoritate aldetik ere gustatzen zitzaidan. Eta egin diezaioke keinu harri filosofikoari ere. Alkimian esaten denez, harri horrek beruna urre bilakatzeko gaitasuna luke, eta horretatik sendagai bat sortuko litzateke, zelulak birsortzeko gaitasuna lukeena. Baina harri hori barruan gure guztiok, eta eraldaketaren bidez irits gintezke horra. Asko hitz egiten da transzenditzeaz, osotasunarekin bat egiten duzun egoera batera iristez. Kontzientzia maila bat da, finean. Hemen segituan beldurtzen gara kontu horiekin, erlijioak kaka asko sartu digulako. Baina alkimiak ez du zerikusirik erlijioarekin.

Aipatzen duzun bilakaera pertsonal horrek zertarako balio izan dizu zuri?

Nire aita suizidatu egin zen nik 9 urte neuzkanean. Berak 40 zituen. Horrek markatu egiten zaitu, eta heriotzarekiko harreman bat sortzen dizu. Ni beti hortik tiraka ibili naiz: hasi nintzen makrobiotikan, gero gaztaroan filosofia ikaskei ekin nien... zerbaiten bilaketan aritu naiz beti. Nire anaiak, aldiz, beste modu batera kanalizatu du guztia: askoz arrazionalagoa da, ez dizkio hainbeste buelta eman. Bakoitzak bere erara bizitzen ditu kontu hauek. Niri horrek gauza batzuk irakatsi dizkit: adibidez, uste dut orain ez diodala heriotzari beldur askorik. Eta ikusten dut jendeari asko kostatzen



zaiola heriotzaz hitz egitea, naturala den hori ezkutatu nahi dela. Uste dut askoz gehiago hitz egin behar genukeela kontu horiez. Beldurtuta bizi gara.

Brigada Criminalen hasi zinetenok partekatzen duzue antzerako bilakaera musikan: punk rocketik folkerantz egin duzue, bai Fiachrasen, bai Bizardunaken, bai Unidad Alavesan, eta bai Harrian ere. Zer dago horren atzean?

Brigada Criminalen aspertu egin ginen punk rockarekin, eta Irlandako folka entzuten hasi ginen –The Pogues eta The Dubliners, batez ere–. Fiachras sortu genuen lehendabizi, eta gero etorri zen Bizardunak, estilo ariketa hobea nahi baduzu, biolinarekin eta flautarekin. Azkenean, gusta dakizuke bluesa, rocka, countrya, psikodelia... baina dena sartzen da folk kultura zabal horretan. Folkean dago guk entzun izan dugun guztiaren funtsa, eta tradizio aberats bat bezala ikusten dut gaur egundik. Bestetik, bagenuen klixearak hausteko borondatea ere. Aspertuta geunden MC5 eta Stoogesen kamisetak daramatzan rockerraren klixearakin. Guretzat punk-a beste zerbait zen, Eskorbutok-eta egiten zuten hori. Baina gero pijo kuadrilla bat bilakatu zen, eta gaur egun hemen egiten den punk rocka, oso ondo, baina eraldatzaile izatetik urrun dago. Halako zerbait dio Johnny Rottenek bere biografian, Sex Pistols desegin ondoren PIL sortu zuenean punkiek ez zutela ezer ulertu, han jarraitzen zutela beren larruzko txupekin eta ileak puntan jarrita. Badago punky guayaren estereotipo bat, eta ni ere egon naiz hor, baina jada ez du zen-

“ ” Bizitza eraldatzen joatea da, eta aldatzen ez bazara, kontu txarra

tzurik. Fiachras sortu genuenean, kontu horrek guztiak sekulako nagia sortzen zigun. Garai hartan oso indartsu zebilen Donostiako Buena Vistako mugida guztia: NCC, Señor No eta horiek oso onak izan dira... baina guk hortik alde egin nahi izan dugu. Nora? Folkera, sustraia-tara. Egun ez dago ezer punkagorik ortu ekologiko bat jartzea baino.

Duela gutxi idatzi zenuen txio bat Chill Mafiaren abesti bati buruz: “Benetako punk-a”.

Aipatzen ari naizenarekin dauka zeri-kusia. Apurtu egin dute, mundu guztiari eman diote egurra, eta musika ona egiten dutela iruditzen zait, gainera. Gero, beren jarrera batzuk urrun geratzen zaizkit –drogen kontu horiek guztiak niri bost–, baina ikusten da kaleko jendea direla, ez datozela familia dirudunetatik, eta aurrera egin dutela artistak direlako, bu-ruari buelta asko ematen dizkiotelako, eta lortu dutelako zerbait apurtzailea sortzea. Eta zer nahi duzu esatea, Twitterren nagusitzen den tonu zuzen hori hankaz gora jartzea, izar ukiezin batzuei zaplada ematea... punka espiritu hori da. Orain jada industriaren parte dira, baina, behintzat, hortik biziko dira. Hertzaina-

kek eta Evaristok gauza bera egiten dute, baina hirurogei urte baino gehiagorekin.

Chill Mafiaz gain, beste zein talde berri entzuten duzu azkenaldian?

J Martina nahiko desberdina iruditzen zait. Edo Tatxers, rock sofistikatuagoa. Edo Flash, Oki Moki, TOC, Marmol, Ibil Bedi... Gauza interesgarri asko ari dira sortzen. Anari ere bere ildoan oso apurtzailea iruditzen zait. Bizardunetako nire lagunak rock andetarra egiten ari dira orain, flautarekin eta gitarrekin: Enemigos del Comercio. Oro har, soinu oso antzerakoa duten disko monotonok aspertu egiten naute.

Zein asmo dituzue aurrerantz?

Hasteko, diru pixka bat errekuperatzeko disko batzuk saltzea. Otsailean zuzeneko batzuk ematekotan gara, eta diskoa grabatu dugunoz gain, beste musikari batzuk ere batuko zaizkigu: Bizardunakeko Adolfo Alcocer gitarretan, eta Fly Shiteko Ander Elorza baxuan. Fredi Pelaezek emanaldi gutxi batzuk gustuko ditugun tokietan: otsailaren 4an Ataunen, otsailaren 10ean Bergarako seminarioan, otsailaren 25ean Azkoitiako Matadeixen, eta martxoaren 11n Igorreko gaztetxean Unidad Alavesakoekin... Toki gehiagotatik deitzen badigute, ikusiko dugu, baina Maitanek eta biok urte eta erdiko ume bat daukagu, eta ez dugu erotzeko asmorik. Bien bitartean, ni jada hasi naiz abesti berriak pentsatzen. Disko bat egiteko prozesua luzea izaten da, eta nazkatuta amaitzen duzu. Zuzenekoetarako gogoia daukat –eta beldurra ere bai, aldi berean–. Eta gerora zer egin pentsatzen hastekoa ere bai. ●



LIBURUA

Azalerak



SUSA

KEINURA ITZULI

ELENA OLAVE

SUSA, 2022

MADDI GALDOS

Gorputza, gertaera, kontaktua, ekintza, unea eta aieruari hitzak jartzera dator *Keinura itzuli* (Susa, 2022) poema-liburua. Nagusiki laburrak diren poemak bildu ditu Elena Olavek (Durango, 1997) bere ibilbideko bigarrena den lan honetan: orotara, munduaren bihotza astintzeko edo babesgabe denari babes eskaintzeko xedez ondutako 57 olerkik osatzen dute bilduma, erreka, euri-oste eta lo-reek edertua dena.


Izan ere, urtaro, landare eta naturako urak darabiltza poetak izendatzeko zail dena izendatu eta bere begietatik ikusarazten dizkigun eszena eta kontaktuzun handien aldean txikitat jo ohi diren mitoak idazteko. Hitzok gordetzen dutenari erreparatu beharko dio, bada, irakurleak: agertzen dutena ez baita beti

ageriko. Iragankortasunaren eta betikotasunaren arteko mugara garamatzate maiz durangarraren poemek: are, baita iragana eta orainaren artekora ere. Gauzak horrela, galera eta aldaketak ardaizten dute, bestetzuen artean, liburua, eta herabe suerta daitekeen ni-ari gotorleku zaion gu bat ere kausi daiteke bertan: “Eskuekin intentsitate eta grinak / partekatzen ditugulako / loratzen dira gatzainondoak gure gainean, / mahatsondoak bildu gorputzean. / Gerizpe honetara heldu bitartean, / nork bere belar gaiztoak erauzita, / elkarri arantzak kentzeko gai gara orain”.

Gaien artean idazketa bera dugu azpimarragarrien: idaztea eta idatzi ezina, idaztearen eduki, arrazoi eta xedeak eta idazteko prozesu edo ariketa arakatzen ditu Olavek, hala, poemotan. *Artea, Ez*

da erraza esatea eta Egin eta desegin ditugu, besteak beste, horren adibide. Halaber, idazketa keinu bezala ulertu eta gorputzari hertsiki loturikotzat jo dezagun ere galdegiten digute lerrook: idaztean testuan galtzen ei da gorputza, hitzarekin adierazten nekeza den eta memoria gordetzen duen gorputza.

Aztarna, arrasto, keinu eta aieruak biltzen dituzte orriok, azaleko marka eta tolesturei segika ondutako kontakizunak. Horretarako erreferentzia asko bildu ditu Olavek, modu ezberdinetan adierazi dituenak, kontaktuak moldatzen gaituenaren seinale eta transformazioak eta balizko poetika berriak izan beharreko abiapuntua adierazita: “egarria ezin delako ilusioz soilik ase / jarraitzen dugu elkarrekin / iturri eder eta baliagarriak sortzeko eginahalean”. ●



MUSIKA

Amalgamaren edertasuna



JUANTXO EGARVA

Fitxa: Euskadiko Orkestraren abonukontzertua: *Handiena*. Zuzendaria: Robert Treviño. Egitaraua: Gerenabarrena eta Brucknerren lanak. Leku: Donostiako Kursaal Auditorioa. Data: abenduaren 9a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestraren azken abonukontzertuan, *Handiena* izenekoan –programa osatzen zuten bi obrei erreferentzia eginez– estiloen kontrajarritasuna eta soinu-bizipenen aurkakotasuna izan zen, zalantzarik gabe, topaketaren gauzarik erakargarriena.

Hasteko, *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiekturako enkarguzko azken obra entzuteko aukera izan genuen. Proiektu hau, lehenengo zirkunabigazioaren –handiena hain zuzen ere– 500. urteurrena ospatzeko, Mikel Chamizo, Mikel Urquiza, Joel Merah eta Teresa Catalanen obrek osatu dute. Oraingoan, zikloa ixteko lana Zuriñe Gerenabarrenaren *Lorraz* izeneko pieza izan da. Tinbrika eta testura iradokitzailez betetako lana da. Konpositoreak berak adierazi zuen bezala, esplorazioz eta sentipenez betetako partitura da. Lan honek "aur-

kikuntza" zaporea uzten du. Elkanok, zalantzarik gabe, esperimentatu egingo zuen sentsazio hori. Euskadiko Orkestrak lan delikatua egin zuen, musikaren ehundurak destakatuz, eta sonoritateen argitasuna eta gardentasuna izan zen ezaugarri nabarmenena.

Jarraian, hasierako lan labur honen ondoren, obra "handiena" iritsi zen, izugarria esanenez bere tamainagatik. Hain zuzen ere, Anton Brucknerren zortzigarren Sinfonia, 80 minutuko iraupenarekin, musikaren historiako sinfonia handienetako bat da.

Obra handi hau konpositorearen nahigabeen eta segurtasunik ezaren emaitza izan zen. Zazpigarren sinfoniaren arrakastaren ondoren, zortzigarren sinfonia hau Brucknerrek gehien miresten zuen orkestra zuzendarietako batek, Hermann Levik, baztertu zuen. Horrek izugarrizko

tristura eta depresioa ekarri zizkion. Baina, austriarrak, bere lanean adoregabetu beharrean, etengabe hobetu eta aldatu zuen obra, Levik helarazitako kritikak kontuan hartuta. Azkenik, Vienan estreinatu zuen obra 1892ko Gabonak baino lehen. Eta arrakasta izugarria izan zen. Obra wagneriarra da bere sonoritatean, baina bere arkitektura Beethovenengandik dator, bere bederatzigarren Sinfoniatik nabarmenago.

Gerenabarrenaren obraren kasuan bezala, Euskadiko Orkestrak, Robert Treviñoren zuzendaritzapean, lan zehatza egin zuen sonoritatearen ikuspegitik eta baita psikologiaren ikuspegitik ere, mugimendu sinfoniko bakoitzean sentitzen diren *mood*-ak birsortzen jakin baitzuen. Bereziki azpimarratuko nuke Adagio-an lortutako giroa, gordin eta lazarri gertatu baitzen bertsio interesgarri honetan. ●



Teklak eta teklak

📍 IÑIGO SATRUSTEGI 📺 MIGUEL SANTOS

Euskararen egunaren bezperan, hiru talde euskaldun ariko dira Biarritzeko Atabal aretoan. Bisitatzeke neukan aretoa, baita Willis Drummond taldearen disko berria eta Lumi eta Orbel taldeak zuzenean entzutea ere. Horiek guztiak kolpetik egitekoen zerrendatik kentzeko baliatu dut gaualdi hotza.

Lumi izan da hiruretan lehena eta gehien harrapatu nauena ere bai. Hipnotikoa da Nahia Zubeldiak eta Manu Matthysek osatzen duten bikoaren zuzenekoak. Bi mahai, kable eta botoi festa bat da. Sakatu tekla bat, eta lortu beste geruza bat. Jarri soinu bat eta eraman abestiak beste dimentsio batera. Nik ere teklekin irakurri dut kontzertua:

1. tekla: Hasieratik erori naiz haien sarean. Uste dut elektronikaren mun-

duan —zaku horretan sartuko ditut—, Euskal Herriko panoraman dagoen apustu serioenetakoa dela, eta ondo egin daitekeen adibide. Are, beste talde batzuen aldean ez direla geratu erdibidean. Eta nago ez dutela behar besteko sonarik lortu. Gure lagun batek esandakoak ezin hobeto laburbiltzen du: Nor ari da Iparraldera begira?

2. tekla: Kontrolatzeko duten guztia kontuan izanda, ez dira galdu momentu bakar batean ere. Ibaiaren eta itsasoaren uretan, lemari gogor heldu diote. Zarata, bai, egon da. Hala nahi zutelako. Eta nahieran eraman gaituzte urrunera ahotsaren efektuekin, edo ekarri dizkigute oroimenak doinu herrikoioagoekin.

3. tekla: Mahaietatik apenas altxatu ditzakete eskuak lumitarrek. Lekuan

LUMI

NOIZ: abenduaren 2an


NON: Atabal aretoan (Biarritz)

bertain iltzaturik behar dute giroak ihes egin ez diezaien. Hala ere, ezin diote dantzari eutsi, xumea bada ere. Eta zer nahi duzue esatea, niri gehiago betetzen nau Nahia belarria mahaira itsasita ikusteak, haren bibrazioak sentitu nahi balitu bezala, oholtzan gora eta behera dabilen abeslari bat baino. Esan nahi dut batzuetan gutxierekin ere betetzen dela, eta lortzen duen eztanda-efektua handiagoa izan daitekeela.

Lau, bost eta ehunka tekla ukitu dituzte, pentsatzeko eman didatenak. Baina labur, atzetik etorri direlako Orbel eta Willis Drummond. Bi hitz hauei ere bai. Orbel sorpresa izan da, ez nituen ezagutzen eta haien eszenak ez du dezeptzionatzen. Willisen zuzenekoak, zer esan? ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Bizkaiko hondartza, Ispasterren. / Bihozmina, nahigabe.
2. Adi, erne. / Abagune, zertzelada.
3. Erroketaren emaitza, erroa.
4. Bizkaiko udalerrria, Durangaldean (Argazkian).
5. Epaile baten erabaki. / Errekatxo.
6. Argi. / Okertzera behartu.
7. Bizkaiko udalerrria. / Gogo biziz, irrikaz.
8. Gogoratu. / Saguzarra.

GOITIK BEHERA:

1. Ozenki. / Aho-gaixotasun, aholegar.
2. Gurtzea. / Ur izoztu.
3. Arreta, ardura.
4. Itobehar, larritasun itogarri.
5. Justu, neurritz. / Zinemako estralurtar famatua.
6. Hurbil. / Gogoak eman.
7. Baztergarria, baliorik gabekoa (iparraldean).
8. Azaleko adiskide.
9. Neodimioaren sinboloa. / Orrialdea.
10. Euskaltegi sarea. / Kulpa.
11. Kaltzio oxido.
12. Errepikatuz, euskal dantza.
13. Sakatu aditzaren infinitibo.
14. Gaizto, oker.
15. Oinarria.

Sudokua

ERRAZA



	4		2				1	6	
		1			3	9	2		
	6			1	8	3	7		
2	7	9	1	5			3		
1			9		7		5		
5			3	2	6	7	9		
7		3	8		1		6		
4		5	7				8		
		8	5			2	4	7	

ZAILA

4		8		2		6	1	5	
								2	
5				8				3	
6	9			5	7		2		
2				1			6	7	
			1		9	2	7	6	
		3	5			1			
1				7					

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Animalien umea

Fetu

Zakar

Seme nagusi

Sai

Kai

Turkiar

Abesbatza

Etekin, emaitza

Norabait

Enea

Mahatsondo

Airean higituz

KUMEA
HEGAN

EBAZPENAK

DENAK BURUA MAKURTU.

ABERTSAREN AURREAN.

ATSOZITZA

9	1	6	4	7	2	5	3	8
7	2	3	5	6	8	1	4	9
8	5	4	1	3	9	2	7	6
3	4	7	2	7	8	5	1	6
2	8	5	3	1	4	9	6	7
6	9	1	8	5	7	3	2	4
5	6	2	7	8	1	4	9	3
1	3	6	9	4	5	7	8	2
4	7	8	9	2	3	6	1	5

ZAILA

6	1	8	5	3	9	2	7	4
4	9	5	7	6	2	1	8	3
7	2	3	8	4	1	5	6	9
5	8	4	3	2	6	7	9	1
1	3	6	9	8	7	4	5	2
2	7	9	1	5	4	6	3	8
9	6	2	4	1	8	3	7	5
8	5	1	6	7	3	9	2	4
3	4	7	2	9	5	8	1	6

ANAGRAMAK

ERRAZA

KARE, 12. ARIN, 13. SAKA, 14. TZAR, 15. OINA.
 PERREKA, 8. ELAIRE, 9. ND, ORRIA, 10. AEK, ERRU, 11.
 ERREPARO, 4. ITOLARRI, 5. DOI, ET, 6. HUR, OTU, 7.
 GOITIK BEHERA: 1. OZEN, KIO, 2. GUR, ELUR, 3.
 GAUENARA.
 KLAR, OKERRARAZI, 7. IURRETA, IRRIKAN, 8. OROITU,
 3. ERRODURA, 4. ELORRIO, 5. EPAI, ERREKASTO, 6.
 ESKER-ESKUIN: 1. OGELA, PENLA, 2. ZURTI, HELDE,

Mabel Rodríguez

MILITANTE FEMINISTA ETA
PUNTES REBELS-EKO KIDE



PROFESIONALA AUZOAREN ZERBITZURA

“Feminismoa unibertsitate garaian ezagutu nuen; gero, feminismoan eta generoan formazio ugari egin nituen jardunaldien eta kongresuen bitartez. Ondorioz, nire aldarrikapenak leunak ziren, partidistak. Feminismo erabat zuzena praktikatzeko nuen, zaratarik gabea, bigarren olatuko feminismoak edaten zuena eta borroka nagusia emakumeen burujabetza lan-merkatuan zuten presentziarekin neurtzen zuena. Gero, amatasunak balore guztiak aldatu zituzten. Urte gehiegitan amatasuna emakumeentzat atzerakada zela aldarrikatzen zuten diskurtsoak aditu ondotik, konturatu nintzen haur bat artatzea, eta bere ongizatean eta heziketan babesa ematea sekula bizi izan nuen gauzarik iraultzaile eta feministena zela. Sistema da atzerakada antinaturala bizi duena, lan hori erdigunean ez jartzeagatik.”

“Emakumeen historia aldarrikatuz borrokatzen dugu indarkeriaren kontra”

Mabel Rodríguez (Sabadell, 1989) hamaika borrokatako militantea da. Soziologia ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta aditua da feminismoan eta generoan. Puntos Rebels elkartearen eta horrek argitaratu duen bortzgarren egutegiaren harira elkarrizketatu dugu.

 SAIOA BALEZTENA  DANI CODINA

Noiz eta nola sortu zen Puntos Rebels?

2016an Judit Carcolse eta Laia Ramirok, La Monda Lironda laborategi sortzailearen bitartez, 2016ko Emakumearen Egutegia sortu zuten, Sabadell-eko Udalak eskatuta. Hurrengo urtean, jende anitzek galdetzen zuten errepikatuko ote zuten eta beren kabuz egitea erabaki zuten. Aurreneko edizioa 2019koa izan zen, deialdi bat egin zuten premisa batekin: “Historikoki gizonezkoentzat izan den eremu batean parte hartzeagatik geure bizitzetan influentzia izan duten emakumeak aldarrikatzea”.

Zuk 2019ko udaberrian parte hartu zenuen, lehen aldiz.

Bai, bigarren egutegian. Garai hartan uste nuen alderdi politikoak feminismoan militatzeko espazio seguruak zirela. Eta Clara Campoamor irudikatu nuen. Espainiako Diputatuen Kongresurako aurkeztu zen Front Republicà koalizioako bigarrena nintzen. Pentsatzen nuen

sufragio femeninoaren erronka ase zuen emakumea izanik, miresgarria zela eta aldarrikapena merezi zuela. Puntos Rebels egitasmoan parte hartzea, hain zuzen ere, erakunde politikarekin desengainua bizitu nuen une hartan, salbatzailea izan zitzaidan. Ordura arte, ez nuen ezagutzen egitura bera ere feminista zenik. Puntos Rebels sare feminista bat da, emakumeak buruzagi dira, baina gizonezkoek ere laguntzen dute. Bertan lokarri bereziak sortzen ditugu, eta sentimenduak, zaintzak eta kontziliazioak tokia dute.

Egutegian irudikapen bat egiten duzuela erran duzu. Zertan datza?

Partaideetako bakoitzak ikerketa bibliografikoa egiten du erreferente baten gainean. Historiaren bidaia horrek laguntzen dio partaidea irudikatzen duen emakumearen azalean jarri, eta bere inguruan go-goeta bat egiten. Prozesu polita da. Modu honetan, egutegiaren argazkia egiten dugun unean partaideak be-



"Amatasuna atzerakada zela aldarrikatzen zuten diskurtsoak aditu ondotik, konturatu nintzen haur bat artatzea dela gauzarik feministena"

rrigiten du une estatiko hori baino harago. Hagitz hunkigarria da. Gaur egun 90 lagunek baino gehiagok lan egiten dugu boluntario moduan.

Podcast bat ere sortu zenuten iaiz.

Bai, egutegia aurkezteko ekimen desberdin bat pentsatzen ari ginela, aukera suertatu zen zuzenean grabatutako podcast bat egiteko, Ràdio Sabadell hiriko irriaren eskutik. Esperientzia arrakastatsua izan zen eta hilabetean saio bat grabatzen hasi ginen, hilabete horretako egutegiaren errepaso eginez. 2022an hilean hileko emakumearen biografia luzatu dugu podcastaren horretan.

Eta 2023an ere jarraituko du?

Bai, baina aldaketaren bat izango du. Izan ere, konturatu ginen interes gehien tertuliak sortzen zuela. Beraz, hemendik aurrera, podcasta hasiko da nortasun propioa izaten eta, egutegiaren hilabetez eta irudikatutako emakumez harago, gizarte gaiak eta gaurkotasuna jorraituko ditugu sakonean, hileko emakumearekin harreman zuzena izan edo ez.

Egutegia salgai dago 80 toki desberdinetan Espainiako Estatuan. Nolakoa izan da hazkunde hori?

Oraindik ez dugu sinesten! Bigarren edizioan erabaki genuen egutegia Espainiako hizkuntza minorizatu guztietan publikatzea, gaztelarekin batera. Horrek ahalbidetu zuen salmenta puntuak toki gehiagotara zabaltzea. Era berean, edizio bakoitzeko partaideek ikaragarritzko lana egiten dute euren lurraldeetan salmenta guneak aurkitzeko.

Aurten, lehen aldiz, *Pikara Magazinerekin* kolaboratu duzue. Nola suertatu zen?

Gure egutegia solidarioa da: onura guztiak zuzenean doaz proiektu feminista batera. Urtero, deialdi bat egiten dugu taldeki-deek proposamenak egiteko eta bozketa egiten da, irabazlea aukeratzeko. Aurreneko aldiz jarri zen hautagaien artean *Pikara Magazine* eta irabazi egin zuen. Guk, dena den, ezagutzen genuen aurrez, gure Euskal Herriko salmenta puntua ere bazelako.

2023ko edizioan bistaratu nahi izan duzue isilarazita dauden

emakumeen memoria. Zergatik?

Emakumeak ikusezin bilakatzea emakumeen kontrako indarkeria bat ere bada, estrukturala, eta oharkabean gertatzen denez, indarkeria gisa antzematea zaila da oraindik. Hor jarri nahi izan dugu fokua: ez ikustarazteak eta emakumeak ez izendatzeak erran nahi du ez direla existitzen, eta beraz, emakumeen izenak eta historia aldarrikatuz borrokatzen dugu indarkeria horren kontra.

Abenduaren bukaeran Euskal Herrian izanen zarete egutegia pentsatuta?

Abenduaren 29an, arratsaldean, *Pikara Magazinerekin* batera aurkeztuko dugu egutegia, Bilbon. Ekitaldi horren bitartez gure proiektua azaldu ahal izango dugu. Ilusio handia egiten digu Euskal Herrian txoko bat izateak. 2020az geroztik egutegia katalanez, gaztelarez, galegoz eta euskaraz argitaratzen dugu. Hizkuntza guttitiak aldarrikatzeko apustua eginez. Eta aurten keinu bat egin nahi izan diogu euskarari, egutegi guztietan hilabeteen izenak euskaraz ere jarritz. ●

Finala

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Kontua, berez, koliseoan bil-tzen ziren erromatarrak bezain antzinakoa da; eta antzinakoa denez ez da zaharra, funtzionatzen segitzen du. Zerbaitengatik izango da. Milaka pertsona joan den igandean, bertatik bertara edo telebistaz, finalari pega-pega eginda, emozioz gainezka, bizitza jokoan balute bezala. Jendetzaren aurrean lehiatzera ateratzen direnen eta publikoaren artean sortzen den harreman arraro hori ulertzekotan, ez bilatu gehiago, sinekdokea da hitza. Zatiak –finalaren protagonistek– osotasuna ordezkatzeko du –ikus-ten ari den jendea, noski, baina zerbait gehiago ere bai: komunitatea, aberria, nazioa–. Eta horrek egiten du, nire us-tean behintzat, lau urtean behingo zita hau benetako gertakizun.

Finalistak gladiadore modernoak beraz? Ez, kontxo, gauzak askoz zibilizatuagoak dira gaur egun Julio Zesarren eta Irulegiko eskuaren garai haie-tan baino. Eta orduan bezalaxe igande honetakoaren bukaeran irabazle garbi bat geratu den arren, gutxienez gai-nontzekoek ez dute bukatu odola tur-rustaka botatzen lurtean fianbre. Datu hori gordetzeko modukoa irudiz-tzen zait, gizateriak ezertan aurreratu ez duela esaka etorriko den hurren-goari erantzuteko: bai zera, bagoaz; pixkanaka, hori bai.

Alferrikako heriotzak saihesteko pagaburuak izendatzen ditugu orain, adibidez: finaleko epaileak. Haien erabakietan kontzentra dezake publikoak –komunitateak, aberriak, nazioak– azken emaitzak eragin diezaiokeen balizko frustrazioa. Amaieran jendearen erpurua goraka edo beheraka dagoen ikustea ez da atsegina izango lan hori egiten dutenentzat, seguru, baina beti agertzen da baten bat prest –eta hori ere zerbaitengatik izango da–.



Baina joan den igandeko finalak ez ote du, aldi berean, beste zerbait ere adierazten? Markagailua zeroan dutela hasten dira lehiakideak, ustez aukera-berdintasunean daudela sinetsarazi nahi digun egoeran. Arau batzuen arabera erabakitzen da nor izango den besteak baino gehiago, ordea. Eta gauza kapritxosoa dira arauak, asmatuak direlako eta finalean denek onartzen dituzten arren, beti direlako batzuen aldekoago. Konpetizioak horrela funtzionatzen du, bai igandean, baita aste-ko beste egun guztietan ere. Eguneroko sufritzen dugun lehia sozialaren metafora gisa ere uler daiteke finala, hortaz.

Hori jakingo ez bagenu bezala jarraitzen dugu ikusten hala ere, pertsonen elkarren artean dibertitzeko intentzio

hutsez asmatu zuten zerbait transformatzen den bitartean: gure neurritik kanpo dagoen handitasun baten printza une batez ikusteak eragiten digun terrore miresgarriaren aurrean jartzen gaitu finalak. Esperientzia sublimea horrelako zerbait zen Kanten arabera; eta niri behintzat balio dit igandekoari hitzak jarri nahian hastean gertatzen den esajerazio-festa konprenitzeko.

Aiba, eta orain jabetu naiz ez dudala esan Qatarreko finalari ala Iruñekoari buruz idatzi ote dudan aurreko guztia. Honezkerok irakurleen esku utziko dut, horrela ortodoxoek, heterodoxoek edo interodoxoek nahi dutena ikusiko dute testu kuantiko honetan. Kexaren bat daukanak, larrutu dezala konstituzio-naleko epaileren bat edo. ●



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZAZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
www.atxegajauregia.com

INDÉSIRABLES

BONBARDAKETATIK *ESPARRURA*. ERBESTERATZEAREN IBILBIDEAK



Köfte Airlines. Halil Altindere. Courtesy of the artist and PILOT Gallery, Istanbul.

ALEXANDRA RANNER . BANI ABIDI . CRISTINA LUCAS . EMILY JACIR . ESTHER FERRER . EUGENIO AMPUDIA . HALIL ALTINDERE
IÑAKI GRACENEA . JOSEPH DELAPPE . LANGLANDS & BELL . MARCOS ÁVILA FORERO . MONA HATOUM . PEGGY AHWESH
PILAR MILLÁN . REGINA JOSÉ GALINDO . ROGELIO LÓPEZ CUENCA & ELO VEGA . Komisarioa: Piedad Solans

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga pza. 1 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus

Antolatzailea

ERAKUSKETA

2022-10-29 | 2023-01-29

Erakunde babesleak

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Historia, Legebiltzailea, Kirolak
& Kultura Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

KULTURA ETA HEKUNTZA
POLITIKA SAJEA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA